

Getxo Antzokia, ateak zabaltzear

Hamar urte iraun dute Getxo Antzoki berria eraikitzeko lanek. Data zehatza aditzera eman ez bada ere, udaberrian irekiko ditu ateak kultur azpiegitura erraldoiak, oposizioaren eta herritar askoren kritiken artean.

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola, Idoia Lorente

Erredakzioa: Unai Brea, Ainhoa Bretos,
Kerman Santiago, Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Kolaboratzaileak: Asier Barruetabeña,
Xabier Buenetxea, Eunate Muruaga,
Izaskun Rodriguez

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurkibidea

- 4 Getxo Antzokia: 10 urte ostean
- 12 Noizko Bilbo-Getxo bidegorria?
- 14 Naturaren behatokitik
- 15 Hizkuntzaren zalantzategia
- 16 Historiaren ganbara
- 18 Hirudika
- 21 Gehigarri berezia: Hezkuntza
- 32 Ana Hormaetxea, gidoilarien presidentea
- 36 Tantaka TV, telebista soziala
- 38 Zinez diot
- 40 Ana Urrutia, emakume surflarien esentziaz
- 44 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak



2



36




2



40



4



Hamar urteko lanen emaitza... eta ordaina

2019ko lehen hiruhilekoan zabalduko dute Getxo Antzoki berria, Getxoko Udal Gobernuak adierazi duenez. Hala, bat egingo du proiektu berean sartu diren beste jarduketa batzuek: Musika Eskola, Basagoiti etorbideko eta San Nikolas elizako irisgarritasuna hobetzea, Andrés Cortina kaleko zati bat oinezkoentzat egitea, San Nikolas plazaren azpian hiru solairuko aparkaleku bat egitea, eta plaza urbanizatzea. Egitasmoak, bestalde, hautsak harrotu ditu udalerriko hainbat alderdi politiko, herritar, merkatari eta elkarteren artean. Besteak beste, zeresana sortu dute lanen aurrekontuak, iraupenak eta kokalekuak.

TESTUAK: AINHOA BRETOS ARGAZKIAK: HODEI TORRES



1928an ireki zituen ateak Algortako Gran Cinema aretoak. 1992an eraikina apur bat berritu eta Getxo Antzokia izena ipini zioten. Azken hori da 2008ra arte zabalik egon den eraikina.

Honela dio *Beau Geste* (Keinu Ederra) pelikulako hasierako pasarte batek: «Mesedez, kontatu odol eta guda istorioak –eskatu zion Michael, eta Claudiak ere antzera ekin zion...». Ronald Colman aktorea agertzen da bertan, protagonista-lanak egiten Atzerriko Legiora joandako gizon baten paperean. Film arrakastatsua izan zen oso, eta munduko hainbat eta hainbat antzokitan proiektatu zuten, tartean Algortako Gran Cinema izenekoa, eraikinaren inaugurazio egunean, hain zuzen.

Antonio Araluze Ajuria algortarrak diseinatu zuen Gran Cinema orain dela ia mende bat, Elorriaga y Cía enpresagaz lan-kidetzan, eta 1928ko irailaren 15ean ireki zituen ateak. Hainbat hamarkadatan elkargune garrantzitsua izan zen herrian. Antzezlan, pelikula, kantaldi eta bestelako ekimenek gozatu ahal izan zuten bertako 620 jesarlekuetan jartzeko aukera izan zuten herritarrek.

80ko hamarkadan gorabehera batzuk izan zituen, eta denboraldi batez itxita egon zen. 1992ko uztailan, ordea, berriz ekin zion martxari, herrian oso ezaguna den Getxo Antzokia izenagaz. Zaila da zenbatzea zenbat film, antzerki, dantzaldi, musikaldi eta bestelako ekitaldi antolatu diren bertan. Zenbat ume eta gaztek ezkutatu ote dute ondoko goxoki-dendan erositakoa, antzokira sartzean kendu ez diezaieten? Zenbatek egin dute oihu, txalo, barre eta negar eraikin horren barruan?

ERREFERENTEA GURA ZUEN UDAL GOBERNUAK. 2007ko udal-hauteskundearen ostean, eraikina berritzeko proiektua aurkeztu zuen EAJk. Urte hartako maiatzaren 4an zabalduko informazioan jasotzen zuten, musika-eskola eta arte eszenikoetarako espazio berria eskaini gura zuten, «Getxoko behar eta kezka kulturaleri irtenbidea topatzeko asmoz». Eraikinari dagokionez, «kultura eta artearen munduan erreferente bihurtuko den lehen mailako azpiegitura» sortzeko konpromisoa agertu zuten, «bere estetika eta arkitektura berritzaileagatik, eta bere ezaugarri teknikoengatik».



Proiektuaren dimentsioak

Guztira 22.000 metro koadro behar izan dituzte egitasmoa burutzeko, ondorengoetan bananduta:

- Entzunareto Nagusia (782 jesarleku).
- Balio antzeko entzunareto bat (266 jesarleku)
- Musika Eskolaren azpiko aretoa (218 plaza).
- Ekitaldi-areto bat (60 plaza).
- Algortako Musika Eskola.
- Hiru solairuko aparkalekua (105 plaza).

Hala, 2008ko urriaren 19an jesarlekuak kendu, eta azaroaren 1ean ateak itxi zituen antzoki zaharrak, orduko hartan betiko. Ken Zazpi eta Elaudi musika-taldeak izan ziren aretoan kontzertua eskaintzen azkenak, eta 2008ko abenduaren 15ean ekin zioten 80 urtez bizirik egondako eraikina botatzeari.

Getxo Antzoki berriak, bestalde, ika-mika ugari sortu ditu hasiera-hasieratik. Izan ere, proiektuaren gaineko desadostasunak agertu dituzte udalerriko hainbat alderdi politiko, elkarte, herritar eta merkatarik. Beste batzuen artean, lanen iraupena nabarmendu dute askok. Lau urtean egingo zutela aurreikusi zuen Udal Gobernuak. Hamar igaro dira.

HAMAR URTEZ LINBOAN. 2009ko abuztuan hasi ziren modu ofizialean Getxo Antzokia eraikitzen. Hasiera batean 7.000 metro koadroko eraikina egitea pentsatu zuten, azkenean 22.000 behar izan dituzte. Guztira hiru entzunareto ditu antzokiak: nagusia (782 jesarleku), erabilera askotariko bat (266 plaza jesarrita edo 769 zutunik), eta Musika Eskolaren azpian dagoena (218 plaza). Ekitaldi-areto bat ere badago, 60 pertsonarentzat edukiera duena, jatetxe bat eta lau edaritegi.

Horrez gain, beste bloke batean eraiki dute Algortako Musika Eskola, kanpoaldean LED pantaila handi bat eta antzokia Abratik ikustea ahalbidetuko duen argiztapen-sistema. Lur azpian, hiru solairu eta 105 plaza dituen aparkalekua egin dute, eta horren gainean dagoen San Nikolas plaza urbanizatu dute. Proiektua handitzeak, noski, denbora gehiago eskatu du.

Getxoko Udal Gobernuak (EAJ eta PSE-EE) azaldu duenez, lehen lauhilekoan hasi eta urte amaierara arte iraungo du Getxo Antzokiaren irekierak, «ezaugarri hauetako ekipamenduak abian jartzeko, ohikoena eta logikoena izaten da apurka-apurka eta era progresiboan egitea, funtzionamendu zuzena eta instalakuntza guztien muntatzea ziurtatzeko».

Administrazio-tresnak eta izapideak beti ez direla gura bezain bizkorrak eta lehenago amaitzea gurago zutela adierazi dute, «baina ezaugarri horiek dauzkan proiektua ez da batere



Zulotik

**ARMANDO
LLAMOSAS RUBIO**
Kultur ondarearen
teknikaria

Badugu zer ospatua!

Hamar urte ondoren, badugu Antzokirik! Belaunaldi batek leku erreferentzialik barik igaro du gaztetasuna. Gainontzeko kultur aretoak, ahaleginak gorabehera, aproposak dira auzoetarako, ez udalerrietarako.

Auzokideen protestak, garajeen arazoak, udaleko gatazka politikoa, beharrezko aurrekontuen falta... Ez dugu aipatuko enparantza berria orain dela urte bi amaitu zutela, eta antzokia inauguraziorako zahartu dela (begiratu zureko piezak nola dauden). Tira! Aurrera! Guggenheim sukarra, krisiaren ondorioak... pagatu behar ditugula pentsatuko dugu. Antzokia eginda dago. Disfrutatzea. Hala ere, errazena eginda dago. Zailena oraintxe dator.

Har ezazu, irakurle, postontzietan sartutako azken *Kultur Getxo*, eta orain dela hamar urtekoa. Desberdinak, ezta? Hor dago arazoa: kultura-eskaintza gelditu da. Inertzian zeuden ekitaldi handiek jarraitu dute (Folk, Jazz...), bainaertain asko, berriz, desagertu egin dira. Formatu berririk ez dago, daudenak txikiak dira, beharrezkoak, baina txikiak. Hor dago erronka: inork uste du oraingo eskaintzagaz antzokia (edo Romo Kultur Etxea) bete egingo denik? Oraindik ez dakigu nola kudeatuko duten, zein eredu jarraituko duten, udalak kudeatuko duen zuzenean edo Kultura Aretoran egingo duten, zuzendari independenteek, enpresa batek, zein politikagaz... Eredu asko, eta informazio eskasa.

Hilabete gutxi falta dira inauguraziorako. Pozten gara. Irrikan gaude antzokia estreinatzeagatik, baina gogo handiagoa dugu programazioa zein izango den jakiteko. Kale egiten badu, proiektu osoak egingo du kale, dirua botatzea izango da. Azpiegiturak erraz egiten dira; programazioa eta kultur eskaintza ona, herritarren neurrian... Hori beste kontu bat da.

erraza, akordio politikoak lortu behar dira, eta horrelakorik lortu ezean prozesuak motteltzen dira». Izan ere, proiektuaren gainerako adostasunik egon ez dela aipatu du Nerea Guijarrubia Garzia Getxoko EH Bilduko zinegotziak. Dioenez, «EAJ ia-ia bakarrik egon da, esan daiteke gainerako ordezkari politikoen babes barik egin duela dena, eta auzokide askoren kontrako jarreragaz». Datu modura, Bilboko Guggenheim Museoa eraikitzeke lau urte behar izan zirela gogoratu du Guijarrubiak, Getxo Antzokiak behar izan duenaren erdia baino gutxiago. Horrenbestez kudeaketa «oso txarra» izan dela esan du.

Udal Gobernuaren iritziz, ezinbestekoa da Getxoko proiektu «bikaina» denaren «uste sendoa» defendatzea, «bereziki epea luzatzen denean eta oposizioak gobernua ahultzeko erabiltzen duenean». Izan ere, Bizkaian kultur erreferente izango dela uste dute. Epea luzatzeak, bestalde, kalte ugari eragin ditu udalerrian.

AUZOKIDEAK, KRITIKO. Obrari dagokionez, ezer segururik egon ez dela azaldu du San Nikolaseko Auzokideen Elkarteko kide Patxi Ametzagak: «Etengabe inprobisatu dute, euren gaitasun-eza agerian utzita». Besteak beste, aparkalekua egitea azken momentuan erabaki zutela esan du, eta horrek ondorioak ekarri dituela: «Aparkalekua eraikitzeke egin zuten makro-zuloak arrakalaz josita utzi zituen ondoan bizi garenon etxeetako hormak. Konponketak, noski, guk geuk ordaindu ditugu».

Hamar urtez luzatu dira kutsadura, zikin-keria eta trafiko- eta zarata-arazoak, eta plazan hainbeste denboraz obrak egoteak bertako merkataritza-guneei eragin die zuzenean, proiektuaren kudeaketagaz jarrera kritiko dutenek salatzen dutenez. Dena den, aurrekontuaren igoera da herrian polemika handienetakoa eragin duen faktoreetariko bat, proiektua luzatzeak sekulako gorakada ekarri baitu gastuetan.

«KONTROL BARIK». 2007an aurkeztutako proiektuaren eta azkenean egin dutenaren artean alde handia dago. Hori dela eta, hasierako aurrekontua bikoiztu eta ia-ia hirukoiztu egin da. Udal Gobernuak adierazitakoaren arabera, «hasiera batean 22 milioi euroko gastua eta 7.000 metro koadroko eraikina egitea aurreikusi zen; honako kopuru hauek behar izan dira azkenean: 52 milioi euro baino gehiago eta 22.000 metro koadro». Esan dutenez, «eraikin sinple bat ez ezik, legez ezarritako bolumetriak eta espazioak eskain ditzaketen aukera guztiak barne hartzen dituen eraikinaren premien emaitza da azken aurrekontua».

Aurrekontu horren 40,6 milioi erabili dituzte obrarako: sei milioi aparkalekuaren, Getxo Antzokiaren eta Musika Eskolaren hondeatze-lanetarako, 3,8 milioi aparkalekua eraikitzeke, 27,7 milioi Getxo Antzokia eta Musika Eskolarako, eta 2,5 San Nikolas plaza eta kaleak urbanizatzeko. Horrez gain, bederatzi milioi behar izan dituzte altzari eta ekipamenduetarako, eta 3,4 asistentzia teknikorako. Udal Gobernuak azaldu duenez, azken inbertsioak

Antzokia barrutik

Auditorio Nagusia (Ereaga):

782 besaulki ditu, neurri handiko eta ertaineko programazioa antolatu ahal izateko: antzerkia, musika klasikoa eta abesbatzena, zarzuela, opera, dantza eta abar. Gaur egun Kultur Etxeak antolatzen dituen Folklore Jaialdia, Abesbatzen Astea, Kontzertu klasikoak eta bestelako ekitaldiak, eta udalerriko kultur elkarten hainbat jarduerak ere areto horretan egin ahal izango dira. Agertokia motorduna da eta neurria egindako maskor akustikoa dauka.

Erabilera anitzeko aretoa (Arrigunaga):

266 besaulki barneragarri automatiko ditu eta 769 lagun hartzeko gaitasuna du. Printzipioz, aurreikusten den programazioa formatu txikikoa izango da, gehienbat musikari lotutakoa: pop, rock, blues, jazz... Era berean, areto hori ikerketarako eta hizkuntza eszeniko berrietarako gunea izango da, eta hitzaldi edo erakusketetarako aretoa. Zinemaren programazio erregularra eskainiko du (astelehenetik eguenera), lau zinema-proiektagailu eta Dolby Atmos soinu-inguratzailerako sistema baitu.

Musika Eskolaren azpiko aretoa (Areeta)

218 besaulki ditu, batez ere Musika Eskolak erabiltzeko izango da, horrek programatutako kontzertu eta entzunaldiak hartuko baititu. Bere programazioa zinemaren eskaintzagaz bateratuko du (barikutik domekara). Formatu txikiko ikuskizunetarako ere erabiliko da, baita udalerriko elkarteentzat eta kultur taldeentzat ere.

«herritarren premia eta aldarrikapenei egokitu zaizkie, baita erabiltzaile nagusiak izango diren sektore zein elkarteen ere».

Eraikuntzan inbertitutako diruaz gain, beste hainbat gastu dago. Izan ere, horrelako eraikin batek mantenua behar du. Kanpoko egurrak, esaterako, hasi dira daborduko hondatzen. «Izugarrizko inbertsioa egin dute, izugarrizko mantenua dakarrena beragaz. Zabalik egon barik ere gastuak ditu» dio Guijarrubiak. Inauguraziorako 56.750 euro bideratu dituztela salatu du EH Bilduk.

Guk Getxo alderdiko bozeramaile Paula Amievaren iritziz, gastuak «neurritz gainerako dimentsioa» du, Getxok behar duena kontuan hartuta: «Izugarri eta inolako kontrol barik handitu dute aurrekontu publikoa, ulergaitza da». Antzeko ustea du Ciudadanos-Herritarrak alderdiak. Azaldu dutenez, «proiektu faraoniko orok dakar beragaz proportzional-ki parekoa den gastua».

EH Bilduren iritziz, «erabat lekuz kanpoko» da aurrekontua, bereziki bertan inbertitu izan den bitartean ez delako dirurik egon beste gauza batzuetarako: «Ez da auzoek eduki dezaketen hainbat beharretan inbertitu, etxebizitza esaterako. Inbertsiorako erabiltzen den partidaren zati bat etxebizitza edo ekipamendu dotazionaleri zuzendu behar zaio, legeak horrela ezartzen duelako. Urte hauetan guztietan diru-kopuru hori zuzenean joan da Getxo Antzokira». Adierazpen horregaz bat datoz Guk Getxo, Ciudadanos-Herritarrak eta PP alderdiak ere. Aipatu dutenez, udalerriko jende askok egin behar izan du alde beste herri batzuetara, etxebizitzan inbertitu ez izanak eragin dituen arazoak direla eta.

Horrez gain, proiektua faseka egiteak ere polemika handia eragin du. PPK salaketa aurkeztu zuen 2010ean Ustelkeriaren kontrako Fiskaltzan. Adierazitakoaren arabera, proiektua zatika egin da, ez delako udalbatzatik igaro. Eduardo Andrade Getxoko PPKo bozeramaileak azaldu duenez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak berak salatu du Getxo Antzokiko proiektura bideratutako gastuak ez daudela justifikatuta. Hala, osoko bilkuratik pasatu barik mugitzeko eskumena duen partida erabili du alkateak, gainerako alderdi politikoei esan dutenez.

Ondorioz, Getxo Antzokiaren proiektuak desoreka sortu duela esan du Guijarrubiak: «Eragin duen desoreka sekulakoa da, hamar urtez baino gehiago elikatu dutelako proiektu bakar bat, oraindino ez dakitena zelako eskaintza izango duen». Izan ere, eraikinari emango zaion erabilera da herrian kezka sortu duen beste faktoreetariko bat.

EDUKIAKAZ BETETZEKO ORDUA. «Getxok antzoki bat behar du». Adierazpen horregaz bat datoz udaleko alderdi politiko denak: «Udalerriko programazio kulturala kontuan eduki behar dugu, oinarritzakoa da. Ezin dugu Getxo aisialdirako eskaintza barik eta bizitza sozial barik utzi» diote Ciudadanos-Herritarrak alderdiko kideek.

Udal Gobernuak azaldu duenaren arabera, Getxoko kultur etxeetako programazioa gauzatuko da gehienbat antzoki berriztuan,

Herritarrei galdezka



«Egokia iruditzen zait. Ikusi beharko dugu, dena den, nola aprobeztatzen duen udalak, baina uste dut Getxorentzat aberasgarria izango dela»

MARI MAR SOLAGUREN-BEASKOA MARQUEZ,
GETXO, 62 URTE



«Berrikuntza positiboa da herriarentzat, baina atzerapenen ondorioz, hamar urte eman ditu Algortak kulturgune garrantzitsu barik, eta horren eraginez, belaundaldi oso bateko gazteok ezin izan dugu erabili»

OIER PEÑA VEGA
ALGORTA, 21 URTE



«Lotsagarria da hamar urtean eraikina ez bukatzea. Pairatu dut arazoa lehenengo pertsonan, eta lehenengo hiru urteak eromena izan ziren auzokideontzat»

TERESA SANCHEZ MARTIN
ALGORTA, 65 URTE



«Kultura-eskaintza baldin badago, ederki deritzot. Leioako kultur etxean hamaika ekimen antolatzen dituzte astero eta oso aberasgarria da guretzat, herria pizten du. Algortako antzokia berdina izango delakoan nago»

SUSANA GONZALEZ MARTIN
LEIOA, 55 URTE

«baina baita udaleko beste sail batzuetakoa eta udalerrian dauden ekimen sozialen, kulturalen eta abarren eskaintza zabala ere», adierazi dutenez.

Adierazpen horretan ezer zehatzik ez dagoela salatu dute gainerako alderdiek. «Oraindino ez dakigu nolako erabilera eman gura dioten antzokiari, ez dutelako proiektu kulturalik aurkeztu. Zertzelada txiki batzuk komunikabideetan, besterik ez», dio Eduardo Andradek. Horren harira, Getxo Antzoki eta Kultur Etxe zaharren berrikuntza nahikoa zela adierazi du PPK, «ez zegoen horrelako eraikin erraldoi eta garesti bat egiteko inolako beharrik».

«PROZESUA ALDERANTZIZ». Paula Amievaren iritziz, prozesua alderantziz egin du Udal gobernuak. Dioenez, lehenik eta behin «ezinbestekoa» da Getxok dituen beharrak ezagutzea. «Ondoren, antolatu gura ditugun ekimenen aurreikuspen zehatz bat osatu beharra dago. Eta azkenik, behar horiek asetzeko eskainiko dugun programaziorako egokia den antzokia diseinatuko dugu. Jakin barik zertara bideratuko dugun, zaila da asmatzea nolako dimentsio eta aurrekontua izan behar dituen».

Orain arte kalean egin izan diren ekimenak antzokira pasatzea ulergaitza zaio Guixarrubiarri: «Hitzordu batzuk oso sozialak dira, Algortako Gaurik Laburrena edo Bertso Jaialdi Mundiala, esaterako. Formatu hori kalean egiteko prestatuta dago, ez areto baten barrurako. Antzoki batean egin daitezke beste mila gauza, bete dezagun beste eduki batzuekatz». Zentzu horretan, antzokiak bideragarritasunik izango duen ala ez larritzen du EH Bilduko kideak: «Zein edukigaz beteko dute eraikin erraldoi hori? Inbertsioa sekulakoa izan

Zinea ikusgai

Zinema komertziala eskainiko dute egunero, ohiko zikloez gainera:

Arrigunaga aretoan eskainiko da nagusiki zinema, alor guztietakoa: komertziala eta Haur Zinema, Zine-Kluba eta Cinema Paradiso zikloak.

Zinema-emanaldien zirkuitu komertzialera euskaraz eginda edo euskarara bikoiztuta ailegatzen diren pelikula guztiak sartuko dira programazioan. Euskadiko Autonomi Erkidegoan egindako edo euskaraz egindako ikus-entzunezko ekoizpenak hautatuko dituzte bereziki, horien proiektzioa erraztuz ohiko programazioaren barruan.

Urteko egun guztietan eskainiko dute zinea, astelehenetik domekara, hainbat saiotan (zine komertzialari dagokionez). Kudeaketaz kanpoko enpresa bat arduratuko da.


da, zer eskainiko dute bideragarria izan dadin?».

«HERRITARRAK INFORMATZEAK LEHENTASUNA IZAN BEHAR DU». Getxo Antzokiaren ekintza-planaren gaineko informazio-falta Udal Gobernuaren garrantasun ezagaz lotu dute hainbatek. Izan ere, proiektuaren gaineko informazio askorik izan ez dutela azaldu du San Nikolaseko Auzokideen Elkarteak: «Inoiz ez digute ezer esan, ez digute azalpenik eman, eta ez dituzte kontuan hartu gure iritziak».

Patxi Ametzagak azaldu duenez, plataforma izatetik elkarte izatera igaro ziren, udaletxean esan zitelako hala eginenez gero euren eskaerak kontuan edukiko zituztela. Baina ezer gutxirako balio izan zuela dio: «Denbora luzez udaletxeko osoko bilkuretara joan ginen, desadostasuna agertzeko. Alkateari esan genion zer pentsatzen genuen, baita zinegotziei ere, mozioak aurkeztu genituen alderdi politikoaren bitartez eta Arartekoan egon ginen, baina berdina izan du, denbora galtzen egon gara, inoiz ez gaituzte entzun».

Antzokiaren inguruko hainbat proposamen aurkeztu zituzten udaletxean. Besteak beste, dimentsio txikiagoko eraikina, eta aretoa eraikitzeke beste leku batzuk. «Alferrik zen, ez zegoen zereginik, erabakia hartuta zeukaten daborduko, eta kito». Izan ere, «Antzokia bai, baina horrela ez» izan da beti euren lema.

IRITZI KONTRAJARRIAK PROIEKTUAREN TAMAINAZ. Algortako Gazte Asanbladak ere hasiera-hasieratik gaitzetsi du egitasmoa. Udalak proiektua bideratzeko



22 metro koadro behar izan dituzte guztira Getxo Antzokiaren proiektu osoa garatzeko. Horretarako, lehenengo plaza eraldatu dute.

orduan izan duen «ezkutuko jarrera» salatu zuten 2008an, eta ordutik beste hainbatetan: «Dimentsio hauetako proiektua burutzeko orduan herritarrak informatzeak lehentasuna izan behar du, Algortako herritarrei eragingo baitie zuzenean batzuek hartutako erabakiak». Horrenbestez, Getxoko Udaleko agintarien politikaren ardatz nagusia «inposizioa» dela azpimarratu dute behin baino gehiagotan.

EREDUEN ARTEKO TALKA. Kultur ereduen tal-kaz berba egin du Nerea Guijarrubiak. Bere us-tez, makro-proiektu bat egin du EAJk, «batek daki zer erakutsi guran». Edukiari garrantzia eman beharrean estalkiari ematen diotela azaldu du: «Badirudi herri handi bat izan gura dugula, eta errealtatea ez da hori. Errealtatea da txikitasunetik jotzen dugula, txikitasun oso aberasgarri batetik, baina hori kudeatzea ez da eraikin ponpoxo eta erakargarriak egitea, baizik eta daukaguna zaintzea eta sustatzea».

Horren harira, Udal Gobernuak bideraga-rritasun-planik jarraitu ez duela ere aipatu du Patxi Ametzagak: «Guggenheim sindromea murgilduta zeuden erabat, eta uste zuten Getxo mapetan agertu ahal izateko ezinbestekoa zela porlanean inbertitzea, zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto».

«PLAZA, NORTASUNAREN HEZITZAILEA». Antzokiaren kokapenak ere zeresan handia sortu du herrian. Izan ere, Algorta erdigunean zegoen plazaren zati handi bat kendu, eta gainontzekoa goitik behera aldatu dute. Ametzagak azaldutakoaren arabera, mende bat baino gehiago daroa San Nikolas plazak Algortako ardatza izaten, «tradizioz algortarren elkargunea izan da, bertan zegoen udaletxe zaharra, eta kontzertuak, berbaldiak eta bestelako iritziak adierazteko erabiltzen genuen kioskoa. Proiektua egiteko bota dute, eta orain isiltasuna besterik ez zaigu gelditzen hemen».

Kiosko hori berreskuratzeko asmoagaz, sinadura-bilketa abiatu zuten antzoki ondoan kokatuta dagoen Ondarreta goxoki-dendako langileek 2016an. Azaldu zuten, «lanak di-rela eta plaza guztiz eraldatuta dago, baina herrian historikoa den zerbait egon beharko litzateke bertan. Kioskoa ikur garrantzitsua izan da beti».

Getxo Antzokia eraikitzen hasi aurretik ere, honakoa zabaldu zuen Algortako Gazte Asanbladak: «Beharbada, Algortak antzoki handiago baten beharra izango du. Hala ere, ez dugu inolaz ere beharrezkoa ikusten antzoki berri bat sortzeak gure herriko enparantzaren suntsipena izan behar duenik ordain». Izan ere, algortarrentzat «leku adierazgarria» dela zioten.

«Antzokiari esker» Getxo Bizkaiko kultur eskaintzaren buruan kokatuko dela ziurtat jo-tzen du Udal Gobernuak: «Proiektu ziragarria da, Getxoko jarduera ekonomikoaren sortzai-le nahiz biderkatzaile. Udalerriko kulturaren esparruan hobekuntza bultzatuko du». Gazte Asanbladaren iritzia bestelakoa da: «Udalak, inori galdetu barik, botatzea erabaki duen pla-za mila harremanen lekuko izan da historian. Enparantza hori zen herri kulturaren sortzaile nagusia, gure nortasunaren hezitzailea, eta he-rria bizkarrezurra». ◀



San Nikolaseko kioskoa berreskuratzeko asmoagaz, sinadura-bilketa abiatu zuten antzoki ondoan dagoen Ondarreta goxoki-dendako langileek. ASIER MENTXAKA



San Nikolas plaza, askorentzat «herri kulturaren sortzaile nagusia». ASIER MENTXAKA.

Herritarrei galdezka



«Lotsagarria iruditzen zait, hamaika urte daroatzate horretan, eta ez dute antzokia amaitzen. Non dago dirua? Guztion dirua?»

PAQUITA NORIEGA GALLARDO
ALGORTA, 69 URTE



«Denbora asko daroate eraikitzen. Askoz lehenago amaitu behar zuten. Jende askok erabiltzen zuen lehen, eta hamar urtean ezin izan da erabili. Gainera, dirua Getxon bizi garen guztiok jarri dugu, nire iritziz alferrikako gastua izan da»

JUAN CARLOS VALDIVIESO GONZÁLEZ
ALGORTA, 39 URTE



«Onura ekarriko dio Algortari Getxo Antzokiak; zinema, musika, antzerkia... eskainiko dira bertan, besteak beste. Denbora daroate, baina horrelako eraikin bat egiteko behar zuten...»

XABIER ELORRIAGA AMEZAGA
ALGORTA, 62 URTE



«Nire iritzia aldekoa da. Getxok horrelako toki bat behar du zentroan. Auzokideak kexu izan dira obrak luzeak izan direlako, baina hori izan da aurrekontuak lortzeko gehiengorik ez delako egon alderdi politikoen artean»

IÑAKI ZARRAOA ZABALA
GETXO, 72 URTE

Aro berria, betiko erronkak

HIRUKA
Uribe Kostako komunikazio-taldea



H izkuntza-ohiturak aldatzeko erronka bota zigun Euskaraldiak udagoienaren hondarrean. Ariketa horri esker, Uribe Kostako euskaldun asko jabetu ahal izan ginen euskararekiko asmo onak gauzatzea zer zaila izaten den, are gehiago erdara aspalditik hain harro dabilen eskualde honetan. Hori gogoan, badira hilabete batzuk HIRUKA komunikazio-taldeak goiburu bat erantsi ziola bere izenari. «Prentsa euskaraz, pentsa euskaraz», dio goiburu horrek, eta hizki handi samarretan idatzita ikusi ahal izango duzu esku artean daukazun hilabetekari honen kontrazalean. Proiektu honi diruz edo bestelako bitartekoz laguntzeko deia ere irakurriko duzu orrialde horretan, hain urrun ailegatuz gero.

Euskaraz pentsatu gura duen herriak informazioa euskaraz behar du, bertokoa zein urrunekoa, euskarazko prentsa eta komunikabideak behar ditu, ezinbestean; eta merezi ere bai! Baina erdaratik euskarara salto egitean, hedabideen kontsumoari dagokiona da euskaldunok gainditzeko daukagun oztoporik handienetakoa. Hala ere, hamarkada bi baino gehiago da Uribe Kostan euskarazko tokiko hedabideak daudela, baita duintasunez lan egin ere.

Tradizio horren oinordekoa da HIRUKA komunikazio-taldea. Itolarrian dago proiektua, baina ez gogo edo ideia faltagatik, badauka emari onik eta! Uribe Kostan posible da kalitatezko euskal tokiko hedabide bat izatea, behar duen laguntza emanez eta ekarpena eginez gero. Orain arteko bidea egin bada, hamaika euskaldun eta euskaltzaleri esker izan da. Uribe Kosta euskaraz bizitzeko aukera egia bihurtu dugu, uribekostarron ondare kulturala, historikoa eta politikoa jasoz eta eskainiz. Eta hala izango da aurrerantzean ere. Horixe gogorazi digu HIRUKAK azken hilabete biotan, «Zu zara giltza!» kanpainaren bitartez.

Eskualdeko pertsona askok egin dio jaramon gure deiari, baina lortu dugun HIRUKAlagun kopurua ez da izan gura genukeen bezain handia. Irauteko, aldaketa esanguratsuak egin behar izan ditug, baita zenbait neurri mingarri hartu ere. Paperari dagokionez, aurrerantzean hilean behin egingo dugu topo elkarregaz. Goza dezazuela! Bitartean, HIRUKA zale denen sostengua lortzeko lanean gogor jarraituko dugu, guretzat hil ala bizikoa izango den urte honetan.

Puntua eta kontrapuntua

Getxo Antzokia



*Lehen gai hau portadak
dit iradokia;
asaldatu xamarrik
dago parrokia.
Polemika da, baden,
ez den egokia...
nahiz eta zirudien
zela utopia,
behingoz zabalduko da
Getxo Antzokia.*

**BEÑAT
VIDAL
GURRUTXAGA**
Getxo




*Nahiz proiektua jende
andanak gaitzetsi,
egin arte udalak
ezin zuen etsi.
Diote, zabalduko
dela bihar-etzi...
nahiz esan eta mila
biderrez berretsi,
ikusten duzun arte
etzazu sinetsi!*

**IMANOL
URIA
ALBIZURI**
Getxo



Lehen/Orain **Lamiako** 1983



ITURRIA: JAVIER LANDETA



Erretratua **Andres Bilbao Soloaga** *Udondoko Txikiteroak* abesbatzako zuzendaria

1984tik aditzen da Andres Bilbao Soloagaren eta beraren kideen doinua Leioan. *Udondoko Txikiteroak* lehenengo diskoa grabatu zuten ia azaroan.

TESTUA: KERMAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Andra Marikoa, hiriburukoa, dela diozku ezkondu ostean Leioara egin zuen getxoztarrak. Udondo taberna erosi zuen Bilbaok 1984an, baita bertan abesbatza taldea sortu ere, Santa Ageda egunaren bezperan. Helduek kalean zergatik ez ote zuten kantatzen galdetzen zion bere buruari gure protagonistak, buruhaustea hautsi guran lauzpabost lagun elkartu zituen eta kantatzeari ekin zioten.

35 urte beteko ditu aurten, otsailaren 4ko arratsalde-gau hartan hasitakoak. Santa Ageda eguneko bezperan, urte batean ere ez du hutsik egin taldeak: «Guretzat egunik politena da. Bazkaria izaten dugu, arratsaldean Leioako geriatrikora joaten gara abestera lehenengo, eta gero kaleetan zehar ibiltzen gara kanta-kantari, makilak astinduz».

«Ez gara abesbatza, lagun-taldea baino; jendeak gu entzutean gugaz bat egitea da gure helburua»

Hainbat urtez kaleak girotzen dituen taldea ezagutu dute leioaztar askok. Udalerrian *Udondoko Txikiteroak* izena hartu dute. Gaur egun 28 kidek osatzen dute, eta ahotsa ez ezik, akordeoia ere erabiltzen dute sarritan. 2018ko azaroan grabatu dute lehenengo diskoa, Urdulizen. Publiko gaztea zein zaharra erakartzeko abestiak hautatu dituzte, euren helburua taldean jende berria sartzea baita; *Loretzkoa*, *Baratze bat* eta *Xalbadorren heriotzean*, besteak beste.

«Ez gara abesbatza, lagun-taldea baino. Ez dugu kantatzeko teknika berezirik erabiltzen, eta intonazioak ez gaitu kezkatzen. Gure helburua jendeak gugaz bat egitea da, entzuten gaituztenean gugaz batera abesten ipintzea», dio Bilbaok. ◀



Gurpil bikoak, Ibaizaba



Daborduko hamazortzi bizikleta-martxa egin ditu Biziz Bizi kolektiboak 2016tik, BI-711 errepidean bidegorria eskatzeko.

Mende-hasieratik dator itsasadarraren ertzean bidegorri bat ipintzeko asmoa, baina proiektua guztiz amaitu barik dago oraindino. Eginda daude Bilboko eta Getxoko zatiak, hau da, ahalmen ekonomiko handieneko udaletakoak, baina bost kilometro falta dira biak lotzeko, ia denak Leioan eta Erandion.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIA: **BIZIZ BIZI** ►

Joa den urtarrilaren 26an, Bilbotik Itsasora Bizi Martxa-ren hamazortzigarren edizioan parte hartu zuten dozenaka lagunak, Bilboko Foru Aldundiaren paretik abiatu eta Areetako Geltokiko Plazara arte. 2016ko apirilean egin zuten lehenengo aldiz ibilbide hori, eta 2017ko irailetik hila-betero errepikatu dute, Biziz Bizi taldeak deituta, eskari argi batez: Bilbo eta Getxo lotuko dituen bidegorri bat egin dadila itsasadarraren ertzean, BI-711 errepidean. Zehazki, Bilbo-



OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina · ALGORTA

944 307 696

JUAN MARI

Harategia



Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

len ertzean leku eske

ko San Inazio auzoan eta Areetan daborduko dauden bizikletarako bideak lotzea da aldarrikapena. Horretarako beharko litzatekeen bidegorri-zatiak 5.300 metro lituzke, horietatik 3.500 inguru Erandion, 1.700 baino gehitxoago Leioan eta 46 besterik ez Getxon.

Gaur egun, hiru udaletako lehenengoan dago oztoporik handiena proiektua (daborduko existitzen dena) aurrera ateratzeko. Ahots kritiko batzuek Diputazioaren jarrera ere kritikatzeko, gaiarekiko pasiboki jokatzeko aurpegiaratu. Argitu beharra dago, hala ere, gaur-gaurkoz Bilboko Portu Agintaritzak dela balizko bidegorriaren ibilbideari dagozkion Erandioko zein Leioako eremuen ugazaba. Eta Agintaritzak argi utzi du araudiak eragotzi egiten diola mota horretako obra bat egitea. Irtenbideetako bat, honenbestez, lur-eremu horiek udalen esku uztea izango litzateke, daborduko Bilbori eta Getxori utzi dizkion legez.

LEIOA, PORTUAREN ZAIN. Leioako Udala prest dago dagokion bidegorriaren parte egiteko, Iban Rodriguez bertako alkateorde eta Hirigintza zinegotziak adierazi digunez: «Eremu hori ez da gurea gaur egun, baina eskatu egin dugu; Portuak noiz emango digun zain gaude, momentuz ez dago inongo eperik aurreikusita». Hori bai, ikusteko dago akabuan zelan gauzatu den proiektua.

2017ko maiatzean, Portu Agintaritzak bidegorria egiteko lau aukera aurkeztu zituen Bizkaiko Batzar Nagusietan. Merkeenak 173.000 euroko kostua zuen, garestienak hamasei milioitik gorakoa. «Oso aukera ezberdinak ziren, eta ikusi beharko dugu zeinen alde egiten den azkenik», dio Iban Rodriguezek, «eta hori zelan uztartu guk dauzkagun asmoak». Leioako Udalak itsasadarren inguru osoa eraldatzeko proiektua dauka, eta besteak beste, mahai gainean du ekologisten proposamen bat, Lamiakoko ibarrean errepidea eraitsi eta mareak bertaraino sartzen uzteko. Hori onartuko balitz, bidegorria ez litzateke joango gaur egun BI-711 den horretatik, Lamiako barrutik baizik. Oraingoz ez dago ezer segurtasun osoz esaterik, baina Leioak argi dauka bere proiektua ez dela izango Portu Agintaritzak aurkeztutakoaren berdina.

ERANDIO MOMENTUZ EZ DAGO PREST. Bidegorriaren ibilbidearen erdia baino gehiago Erandiori dagokio. Joseba Goikouria alkateak, 2017an *Deia* egunkariari emandako elkarrizketa batean, adierazi zuen berari ere gustatuko litzaiokeela Bilbo eta Getxo arteko bidegorri bat egotea, baina Erandiori tokatzen

Eskaria, change.org webgunean ere bai

Gurpil biren gainean pedalei eragitea ez da itsasadarreko bidegorria eskatzeko modu bakarra, change.org plataformaren bidez sinatuz ere egin daiteke eta, lotura honetan: <https://labur.eus/tUA4f>. Idazkia Bizkaiko Ahaldu Nagusiari zuzenduta dago, eta honela dio azken paragrafoan: «San Inazio eta Areetan elkartzea Euskadiko lehenengo “bizipista” izango litzatekeenaren bitartez, gauzatu beharreko proiektua da, San Inazio eta Areetan ez ezik, Bilbo, Lutzana, Erandio, Astrabudua, Leioa, Lamiako, Getxo, Portugalete (Bizkaia Zubiaren bitartez), Berango eta are Sopela eta bertako hondartzak ere batuko liratekeelako! Hogeita bat kilometro autoen arrisku barik». Lerro hauek idazteko unean, 3.787 lagunek izenpetu dute eskaria. Helburua 5.000ra ailegatzea da.

Bizkaiko Batzar Nagusiek Espainiako Sustapen Ministerioari bidegorria egin zezan eskatzeko proposamena onartu zuten 2017an, baina Madrilek ez du asmorik proiektua berak gauzatzeko

zaiola «parterik txarrena». Hasteko, lanen kostuak udalarentzat «onartezinak» direla dio Goikouriak. Horrez gainera, bidegorriak lekua kendu luke autoak aparkatzeko, eta ikusi beharko litzateke ere zelan eragingo liokeen bertan dagoen industriari. Gauzak horrela, momentuz Erandiok ez dio lurren erabilera eskatu Portuari. HIRUKAK egindako deiari ere ez dio erantzun udalak.

2017ko urrian, Bizkaiko Batzar Nagusiek EH Bilduk aurkeztutako legez besteko proposamen bat onartu zuten, Espainiako Sustapen Ministerioari eskatzeko bere gain har dezala bidegorria egitea, baina ministerioak argi utzi du ez daukala halakorik egiteko asmorik. Bere proposamenaren bigarren puntuan, EH Bilduk eskatu zuen lanik ez egitekotan, Sustapenak behintzat lur-eremuak Bizkaiko Foru Aldundiaren esku utz zitzala, hark ekiteko proiektuari. Azkenik, horren ordez EAJ eta PSEren zuzenketa bat izan zen onartutakoa, Aldundiari ez baizik eta udalei uzteko lur horiek, aldi berean bidegorria egin ahal izateko diru-laguntza emango zaiela ziurtatuz. Eskari horrek ere ez du fruiturik izan, oraindino behintzat. Aldundiak, bere aldetik, gaur-gaurkoz gai honetan inongo eskumenik ez daukala adierazi digu.

BIZIZ BIZI, IRTENBIDE ESKE. «Eskatzen dugun neurriko bidegorri bat egitea huskeria litzateke Bilbo Handiaren tamainako beste edozein hiritan», dio César Montalbánnek, Biziz Biziko bozeroaleak, joan den udagoienera Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiari zuzendutako gutun ireki batean, «baina hemen gaindiezinezko oztopoa bailitzan aurkeztu digute». Montalbánek ustez, ulergaitza da proiektua gelditu egotea, kontuan izanda 2000. urtetik hura aztertzen eta planifikatzen ibili diren erakunde denak (Aldundia, inplikaturako lau udalak, Bilba Ría 2000, Portu Agintaritzak, Garraio Partzuergoa) «alderdi beraren esku» daudela.

Aipaturako eskutitzean, Montalbán kexu da Erandio «baka-rik» geratu izanaz. «Logikoa da Erandioko Udalak esatea euren ezin diotela ekin dagokien proiektu-zatiari; zein momentutan utzi dute ardura haren esku 2000 eta 2001ean bidegorria egiteko prest agertzen ziren erakunde horiek denek? Argitu egin beharko digute». Bien bitartean, erakundeek konpromisoa lortu arte hilero-hilero bizikleta-martxak antolatzen segituko duela iragarri du Biziz Bizik. Hurrengo biak otsailaren 23rako eta martxoaren 30rako deitu dituzte. Goizeko 11:00etan da hitzordua, Bizkaiko Aldundiaren aurrean. ◀



AINGARA



BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

Agate Deuna bezperan eta Aratusteetan jantzi zaitez Aingaran!

944 038 953
bordadosaingara.com

Aurrezki Kutxa, 18
48930 Erromo - GETXO



XABIER BUENETXEA **NATURAREN BEHATOKITIK**

Bizitzaren suspertzea dator eguna luzatzeaz batera



Ubarroi mottodun bat ur-ertzean, elikagai bila. XABIER BUENETXEA

Sail berri bati hasiera emango diogu artikulu honen bitartez. Ingurumena behatuta sortutako ospakizunak, Amaluraren etapak eta horien ezaugarriak dira, besteak beste, gaurtik aurrera hemen aurkituko dituzunak.

Heldu da azkenean Lurraren esnatzea. Hilabete luzez atseden hartu ostean, introspektibotik esnatu eta ziklo naturalari emango dio jarraipena Lurra otsaileko lehenengo egunetan, antzinako kulturetan pentsatzen zutenaren arabera. Hala ere, Lurraren esnatzea ospatu eta argiari ongi etorria ematen zaion bitartean, negu gorrian jarraitzen dugula gogoraraziko digu Uribe Kostako inguruetatik egiten dugun edozein ibilaldik.

Gure basoak biluzik daude oraindino, eta sabaietan arbaztak baino ez dira gertatzen, udaberrian hosto berdeen forma duten teilaz estaliko direnak. Eguzki-izpi ahulak hasi dira daborduko hostoetan pilatzen den hezetasuna berotzen. Eta horri esker esnatuko dira orbel tartean lurperatuta egondako ornogabeak. Halako prozesu ziklikoak biziko dituzte narrastiek, sugeek eta muskerrek. Baita zenbait anfibio ere, nahiz eta batzuk ugalketa-denboraldian dauden daborduko, arrabioak eta baso-igelak, esaterako.

Ugaztun txiki batzuk, basakuak kasu, lo jarraitzen duten bi-



Kurlinka bekaiduna

Numenius phaeopus

Mota honetako hegaztiak Afrikako hegoaldean igarotzen dute negua, eta Artikora joaten dira ostean habiak egitera. Zehazki, Eskozian eta Itsaso Baltikoaren hegoaldean sortzen dituzte beren habiak. Tartean, Euskal Herriko zeruetatik ikus ditzakegu.

tartean, tamainu handiagoko beste hainbatek araldiari emango diote hasiera. Hala, otsaileko gau izoztuetan emeen atzetik ibiliko dira azeri gorri arrak. Kurrinka egiten duen marru zorrotz eta altua entzun ahal izango dugu orduan, babestuen daudenak ere izoztuko ditu zarata horrek. Horiez gain, beste hainbat ugaztun ere ekingo diote araldiari garai hauetan, katajineta adibidez.

Ingurumena argiaren etorreraren berri ematen digun arren, neguko espezie askok nahiago izaten dute apur bat gehiago itxaroten iparraldera joan aurretik. Txori txikien talde ugari jarraituko dute gure zelai eta basoetan, hazi eta ornogabeak elikatzen, txirtak, txontak, tarinak eta pepetxinak kasu. Europa eta Afrikako hegoaldera igarotzen diren hegaztiak, berriz, hasiko dira beren ugalketa gunetara heltzen, bidean geldituz, noizean behin, atseden hartu eta indarrak batzeko. Ustekabean harrapatuko gaitu garai polit honetan zerutik datorren zaratsak, kurlu eta antzar taldeek V forma osatzen dutenean egiten dutena, alegia, hodeiak gurutzatzen dituzten bitartean.

Gure kostaldea ere berpiztu egingo da hegazti horiek eta negua gugaz igaro dutenak elkartzeko direnean. Zenbat gozatu dezakegun ehunka espezieetako kalatxoriak batzen direnean, edota txurlinak, bernagorriak, kurlitak, bestelako zangaluzeak, aliotak edota itsas-pottorak ikusten. Denborale eta tubio egunak aprobetxatu, horiek izaten baitira onenak mota horietako hegaztiak ikusteko.

Horrez gain, negukoak ez bezala, itsaslabarretako espezie batzuk ere ugalketari emango diote hasiera garai honetan, adibidez, belatz handia eta ubarroi motoduna. ◀



EUNATE MURUAGA **HIZKUNTZAREN ZALANTZATEGIA**

Atal berria edo atal berri bat?

Urte berriak asmo berriak ekarri ohi ditu, eta HIRUKAk horiei atal berriak gehitu gura izan dizkio. Hauxe duzu horietako bat, irakurle; eta bertan euskara bera izango dugu hizpide.

Jakin badakigu zer nolako buruhausteak ekarri ohi dizkigun gure hizkuntzak, izan euskaldun berri zein euskaldun zahar. Denok egin dugu duda inoiz euskaraz idazten edo hitz egiten aritu garenean, eta ziur eztabaida bat baino gehiago piztu dela horren eraginez: «Aizu, nola esango zenuke euskaraz...?».

Euskaldunok elebidunak (edo eleaniztunak) gara, eta beste hizkuntzen eragina dugu nahitaez. Euskararen eta gaztelaniaren arteko elebitasuna modu desorekatuan dago, baina aipatzekoak dira orekatze-bidean emandako aurrerapausoak (sintaxian, lexikoan...).

Bada, atal honetan oinarritzko euskararen egon daitezkeen zalantzak argitzeko bidea eskaini gura dizugu; eta, era berean, gonbidatu erabili ohi ditugun arauak (linguistiko, akademiko edo estilistikoez) gogoeta egitera.

Morfologia eta sintaxi-arazoak, ortografia, hiztegia, erdarakadak, kalko okerrak, esamoldeak, gomendio eta arauak... Horiek guztiak izango ditugu bidaide, eta sortzen dizkiguten zalantzak argitzen ahaleginduko gara.

Ez pentsa, baina, horretara soilik mugatuko dugunik txoko hau, gure elea hori baino askoz gehiago da eta. Eskualdeko hizkeraren berezitasunak, bitxikeriak... Horiek gabe ez ginateke gu izango, eta zenbaitetan eurei jarriko diegu arreta. Ez gaurkoan, ordea.

Oraingoan, eta atalari hasiera emateko, bat/batzuk hitzek azken urteotan hartu duten erabilera okerraren inguruan ari-tuko gara. Badirudi gaur egungo euskara mintzatuan eta idatzian bat/batzuk erabiltzeko joera dagoela, lehen hain ugari agertzen ez zena.

Hori, hein handi batean, gaztelaniaren eraginez gertatzen zaigu euskaldunoi, zehazki determinanteen erabileraren eraginez. Hizkuntza batetik bestera oso desberdina da, eta ezingo dira automatiko kalkatu batetik bestera, nahiz eta joera hori



Gaur egungo euskarak badu joera bat/batzuk erabiltzeko, lehen hain ugari agertzen ez zena.

nabarmena izan gaur egun. Hala ere, ez gara zorrotzegiak izan behar horregaz, izan ere, gaztelaniaren antza duen oro ez baita erdarakada. Baina gatozen harira. Badu euskarak, gaztelariaren aldean, -a(k) mugatzailea edo artikulua erabiltzeko joera erabatekoa, gaztelaniak artikulua indeterminatua erabiltzen duen tokian:

- Soy UN ser humano.→Ni gizakiA naiz. (Ni gizaki BAT naiz.)
- Eres UN tonto.→Zu tontoA zara. (Zu tonto BAT zara.)

Batzuetan, ordea, zer esan gura den da kontua, eta bi formak dira zilegi. Izan ere, nola behar du: «Aulki txiki BAT (erosi dute)» ala «aulki txikiA (erosi dute)»?

Biak dira egokiak, zer adierazi gura den, hau da, zer nagusitzen den:

- Zer?: Aulki txiki BAT
- Nolakoa?: Aulki txikiA. ◀

Íñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41



KULTUR ELKARTE & TXOKO EUSKALTZALEA
BAZKIDE IZAN GURA?
WWW.AZEBARRI.EUS / EUSKAL HERRIA 14, ALGORTA





JON ORMAZA HISTORIAREN GANBARA

Getxoko gotorlekuetan barrena

Uribe Kostako historiari buruz arituko naiz atal honetan. Modu labur eta xumean gure eskualdean hainbat garaietan gertatutakoak azaleratzen saiatuko naiz, irakurlearen gusturako, espero.

Atalari hasiera emateko, Erdi Arora egingo dugu salto oraingoan. Zehazki, Getxoren jatorriari buruz arituko naiz lehenengo honetan. Gaur egun ez dago batere argi, baina badi-rudi XII. menderako bazegoela giza populazio bat Andra Mariko jatorrizko elizaren inguruan (Basurto, 1989).

Getxo beraren existentziari buruzko lehenengo dokumentuak 1390 eta 1476 urtekoak dira, Guadalajarako gorteetan Bizkaiko jauntxoan alegatuetan, eta Lope Gartzia Salazarren *Bienandanzas e Fortunas* delakoan, hurrenez hurren (Beascochea, 1992). Geroxeago, 1515ean egindako zenbaketa batean 22 *foguera* (etxebizitzetako suei esaten zitzairen) besterik agertzen ez diren arren, 1635erako 87ra heldu ziren, eta 139a 1746. urtean.

Beascochearen ustez, 1.000 lagun inguruk osatzen zuten urte hartan Getxoko biztanleria. XVI. eta XVII. mendeetan eraiki eta gotortu zituzten Galeako eta Begoñako gotorlekuak, lehenengo atal honetan azalduko dizuedan bezala.

DEFENTSA-SISTEMA INDARTZEN. Galeakoa garai bateko defentsasisteman kokatutako lau gotorlekuetako bat da. Badi-rudi egungo itxura fisikoa 1740ko hamarkadan hartu zuela. Aurretik, kostaldeko irtenguneetan kokatutako parapetoak eta bateria gutxi batzuk besterik ez zeuden inguruan. 1624ko martxoaren 10ean egindako Bizkaiko Batzar Nagusian horiek berrindartzeko erabakia hartu zuten, Abrako gainontzeko gotorlekuak batera modernizatzeko.

Hala ere, ezer gutxi egin zuten azkenean (Zabala, 1990). Badi-rudi 1740an, Espainia eta Ingalaterraren arteko guda has-teagaz batera, eman zutela Galean fundamenduzko gotorleku bat eraikitzeke agindua, Bizkaiko Diputazioaren eskutik. Horren diseinua Jaime Sycre ingeniariari eskatu zioten, eta urte bi berandago hasi zituzten lanak (Zabala, 1990), nahiz eta bertan kokatutako kanoiak erregeak berak eman zituen: 18ko hamasei pieza, La Cavadako fabrikatik ekarriak. Gerra amaitu ostean, erdizka utzi zuten, gotorlekua izateko beharra desagertu zelako. Ordutik, garaiko beharren arabera konpontzen joan dira noizbehinka, 1755ean, 1765ean eta 1775ean, esaterako (Beascochea, 1992).

XIX. mendea aurrera joan ahala, gotorlekua zaharkitzen joan zen, momentu jakin batzuetan garrantzia izan bazuen ere (Bigarren Karlistadetan bi bandoek okupatu zuten eraiki-na, lehenik gobernu zaleek eta karlistek ostean).

Gaur egun dirauen erdiguneko dorre zilindrikoa 1791n eraiki zuten Kontsulatuaren aginduz, itsas-argi funtzioak betetzeko. Hala ere, ez zuen luze iraun. XX. mendeko 70eko hamarkadan, turismorako berreskuratzeko ahalegina egin zuten, taberna-jatetxe bat ipiniz bertan (Zabala, 1990), baina horrek ere ez zuen arrakasta handirik izan, eta ordutik hutsik eta des-lai dago (dorreak zaharberritze mugatua izan zuen 2013an).

BEGOÑAKO GOTORLEKUA. Aipatutako defentsasistemaren barruan, noski, Begoñako gotorlekua ere bazegoen, eremu

estrategikoa baitzen Abrako itsasaldean defendatzeko. Koka-lekua paregabea da, itsasadarra eta itsasoa bistan dituen. Horrenbestez, lurmutur horretatik portu garrantzitsuak defendatzea izan zen, hasiera-hasieratik, gotorleku haren egin-kizun nagusia.

Hala, 1673an Bizkaiko Diputazioak agindutako ikuskatze batean, Begoñako gotorlekua antzeman daiteke kanoiaren zenbaketan. Hurrengo zenbait datatan zuzenean aipatzen da hango armamentuaren egoera, 1681 eta 1684 kasu. Mende berriagaz batera, 1741 eta 1759 urteen tartean, gotorlekua berriztu, indartu eta hornitu zuten (Zabala, 1989). XVII. mende amaiera eta XIX. mende hasiera bitartean, berriztapen-prozesuak egin zizkioten.

ORAIN DELA 131 URTE ERAITSIA. Militarki Gerra karlistetan erabili zuten azkenengo aldiz, baina 1874rako zerbitzutik kanpo geratu zen Begoñako gotorlekua. 1888. urtean eraitsi egin zuten, eta ordutik desagertuta dago. Gaur egun, bertan martxan dagoen proiektuan hainbat indusketa-fase egin dira badakit. Gotorlekuaren arrastoak aurkitu eta jendarteari zabal diezaizoten irrikan nago, baina hori beste batean izan beharko da!◀

Bibliografia

- Basurto, R. (1989) *Guecho: la evolución de los modos de vida de una anteiglesia de Vizcaya*. Harriluze, Getxo.
- Beascochea, J. M. (1992) *Getxo: monografía histórico-artística*. Diputación de Bizkaia, Bilbo.
- Zabala, C. M. (1990) *Historia de Guecho*. Padres Trinitarios, Algorta (Bizkaia).



Galeako gotorlekua gaur egun. HODEI TORRES

Sukaldean **Gure Etxea** taberna

Bertoko osagaiak nagusi



Gure Etxea

Aurrezki Kutxa
kalea, 14
ITZUBALTZETA/ROMO
94 463 68 80.

10:00etan zabaltzen
dute egunero,
martitzenetik zaturara.
Bazkaltzeko ordutegia:
13:00etatik 15:30era.
Afaltzeko ordutegia:
20:30etik 23:00etara.
Aste-akabuetan afari-
ordutegia ordu
bat luzatzen da.



TESTUA: AINHOA BRETOS / KERNAN SANTIAGO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Itzubaltzeta/Romon oso ezaguna da Gure Etxea taberna. Metroko geltokitik irten eta eskumatara eginez topatuko duzu, oinezkoen kale batean. Joseba Andoni Irustak 27 urte daroatza taberna defendatzen, baina izatez bere gurasoek sortu zuten 1977an. Hala, aspalditik izan da gazte zein nagusien topagune. Aste-akabuetan gainezka egoten da jatetxea, eta ez da gutxiagorako, bertako kartan hamaika aukera baitago: itsaskiak, arrainak, barazkiak edota txingarretan prestatutako txuleetak, denak txapela kentzeko modukoak. Horrez gainera, pintxoak beteta aurkitu dezakegu beti barra.

Argazkian ikus daitekeena eskaintza zabal horretako plateretako bat da: denboraldiko barazkiak. Prestatzeko, kalitatezko eta bertoko produktuak erabili dituztela azaldu digu ugazabak, horiek baitira Gure Etxeako menua osatzeko aukeratzen dituenak.

Denboraldiko barazkiak

Osagaiak:

Lekak, alkatxofak, ilarrak, babak, kalabaza, urdaiazpikoa, arrautza, almendrak eta barazki-saltsa.

Ilarrak, lekak, alkatxofak eta babak Tuterakoak direla esan digu; kalabaza, aldiz, Getxokoa. Osagai horiei urdaiazpiko ondua eta almendra gutxi batzuk gehitu dizkie Irustak, ukitu gazia emateko. Plateraren erdi-erdia arrautza-gorringoa ipini du, sardexkagaz ukitu eta berehala urtu dena. Azkenik, gure ahoetan zapo aparta utz dezan, barazki-saltsa leun eta samurragaz osatu du platera. Guzti hori, noski, ogi-apur batez lagunduta. Ederra. Osagai denak batera dastatzean konturatu gara konbinazio ezin hobe dela.

Gure Etxea tabernaren giroa hurbila da, etxekoa, atsegina eta oso lasaia. Horrelako zerbaiten bila bazabiltza, eta kalitatezko produktuak dastatu gura badituzu, edozein momentu da egokia bertara hurreratzeko. Martitzenetik zaturara zabalik aurkituko duzu 10:00etatik 23:00etara. Egunero ematen dute bazkaltzen eta afaltzen, eta barikuetan eta zapatuetan ordu batez luzatzen dute afaltzeko ordutegia. ◀

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

*Elikagai
ekologikoak*

*Ekizleak
eta banatzaileak
★
Etxez etxeko
zerbitzua*

info@biozelai.com | T: 685. 798. 567 | GATIKA (Bizkaia)



Hain urrun, hain hurbil





Siziliatik Uribe Kostara, urruneko eta gure inguruko historiak hurbilduko ditugu, kataloxatik begira egongo bagina bezala.

Mugak Zabalduz Karabanagaz bidaiatu zuen HIRUKAK, Europa zeharkatu eta hainbat errefuxiatu eta kolektiboren egoerak ezagutzeko. Hemen duzue orduko oroitzapenen parte bat, beharrezko oroitzapena, egoera ez baita asko aldatu. Kartzelak diruditen zentroak, izenik gabeko hilarriz betetako kanposantuak, itsasoa kontrolatzeko base militarrek... Eta egoera latz horren kontra borrokatzen duten kolektibo eta pertsonak.

Gurean ere egon dira borroakak, batez ere emakumeen ahalduntzea asko indartu da azken urteetan, eta horren lekukoak izan gara. Mugimenduak daude gizartean, errefuxiatuak bezala bizimodu hobe baten bila dabiltza asko. Emakumeak eta langileak nagusi izan dira azkenaldian borroka horretan, baita ere natura eta gure ingurumena zaintzeko deia zabaldu dutenak.

Itsas labarretatik mendietara, eta herrietan barrena, argazki-kamera eskuan eta begiak zabalik ibiliko gara.





Hezkuntza


hiruka
Gehigarri berezia

144. zenbakia

2019ko otsailaren 1etik otsailaren 7ra arte

Geroa marrazteko, ondo aukeratu

Uribe Kostako gurasoek eta tutoreek eskura daukate ikastetxe-eskaintza zabala, etxeko gazteenek kalitatezko hezkuntzaz goza dezaten.



**euskaraz
bizi
nahi dut**

INFORMAZIO +

Santa Marina Haitza 14
48993 GETXO
944 911 786
www.aixerrota.hezkuntza.net

AIXERROTA BHI IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez

DBH 1: Biologia eta Geologia (Euskara/English)

DBH 2: Matematika (Euskara/English)

DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)

DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez

• Zientzia modalitatea

• Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zereginak ikasteko gela



hamilton
IDIOMAS

SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Iberre 9.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

**INGELESA
ALEMANIERA
FRANTSESA**

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingelesa hiru urtetik aurrera
Talde txikiak
Inglateran egonaldiak

Ikasteko zailtasunei aurre egiten

Eskolako erritmoa ez jarraitzea arazoa da umeentzat. Horregatik, Hire Ondoan zentroan hamarkada bi daroatzate ikasteko zailtasunei aurre egiteko estrategiak garatzen.

Pedagogian hogeitau urte daroatza Iranzu Arroita Jauregik, Algortako Hire Ondoan zentroko arduradunak, «egunero ikasten, eskuz esku umeakaz, eurak baitira irakasle onenak». Gurasoak ere maisu-maistra bikainak direla dio: «Euren ikuspuntuak, senak eta ardurak plazaratzen dizkirate, eta nik aintzat hartzen ditut». Izan ere, familiakaz funtsezko orientazio-lana egiten dute Hire Ondoan-en, beti ere helburu batez: ikasteko zailtasunak atzeman, aztertu eta horientzat konponbidea bilatzea.

Hala, ikasleei laguntzeko mekanismo eta estrategia egokiak martxan ipintzen dituzte. Ikasteko zailtasunak aipatzen dituztenean, zertaz dabilzan galdetzen diete. Denok ulertzeko, «eskolako erritmoa segitzeko kapaz ez izatea da». Arazo horiek tratamendu zuzena daukate ikastegian: hainbat metodologia, estrategia eta ikasteko teknika erabiltzen dute, ikasleen motibazioa eta ikasketa egokia ziurtatzeko. Aldi berean, garrantzi handia dauka, esan bezala, gurasoakaz orientazioa lantzeak eta haiei gomendioak emateak. Ez hori bakarrik: umearen ikastetxeagaz batera ere lan egiten dute. Eskolako erritmoa jarraitzen ez duten umeek sufritu egiten dute, eta arazo horri behar adinako garrantzia ematen diote Hire Ondoan-en.



Eskolan aurrera egiteko zailtasunei behar adinako garrantzia ematen diete Hire Ondoan-en.

Garrantzi handia dauka orientazioa gurasoakaz batera lantzeak.

Formazio etengabea hezkuntzarako garrantzitsua dela jakitun, bestelako tresna eta baliabideak lantzen dituzte. Azken boladan, Montessori pedagogia ikertzen dabilta. Umeen askatasunean eta autonomian oinarrituta dagoen hezkuntza-metodo bat da Montessori. Emaizta da umea dela bere garapenaren protagonista, eta aldi berean ingurura egokitzea lortzen duela.

Eleaniztasunaren institutua

Artaza-Romo BHI, A, B eta D ereduetan nerabeakaz lan egiten duen institutu publikoa da. Ikasgelak digitalizatuta ditu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eredu denak eskaintzen ditu Artaza-Romok; gaztelania hutsekoa, 4. mailan bakarrik. Batxilergoan, aldiz, A eta D ereduak aukera daitezke, Giza eta Gizarte Zientziak, Zientziak eta Teknologia eta Artea arloetarako. Ohiko eskolez gainera, askotariko eskaintzak ditu institutuak, barbarako trukeak Frantzia, Alemanian, Danimarkan eta Italian, eta hizkuntza-ikastaroak (ingeleza eta euskara). Hezkuntza bereziko arreta-zerbitzuan eta unibertsitateko tailerretan parte hartzeko aukera ere badago, baita orientazio- eta psikologia-zerbitzuetan ere. Ikasgela denek arbel interaktiboa, ordenagailua, audio-ekipoa, proiektorea eta Internetarako sarbidea dute. Horrez gainera, bost informatika-gela, musika-gela bi, batxiler artistikorako gela bereziak eta askotariko laborategiak daude, fisikan, kimikan, biologian, geologian eta argazkigintzan trebatzeko.

Ikastetxeak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie ikasleei: janlekuaz eta garraioaz gainera, gela itxia erabiltzeko aukera dago, baita psikologoaren zerbitzuak baliatzeko ere. Institutuak posta elektronikoa bana eskaintzen dio familia eta ikasle bakoitzari. Gaur egun, hamaka proiektu dituzte esku artean: Eleaniztasun Proiektua, Curriculum Dibertsifikazio proiektua, Bidelaguna, sare-hezkuntza, Agenda 21,



Ohiko eskolez gainera, askotariko eskaintzak ditu institutuak.

Institutuko ikasgela denak teknologia berrietara egokituta daude.

PREE, hezkidetza-elkarbizitza, Bizikasi, elkartrukeak eta normalizazioa, Erasmus+ (K2)...

12-18 urteko neska-mutilek jardura osagarriez gozatzeko aukera dute: museo eta erakusketetara bisitak, ibilbide ekologikoak, musika klasikoko kontzertuetara, unibertsitateak antolatutako jardueretara eta antzezlanetara irteerak... Urtean behin Areetan egiten den Getxo Arte egitasmoan jarduteko aukera ere badute ikasleek.

Leioan hezkuntza eraldatzen

Espazio berritzaileak, teknologia berritzailea, eskola-jazarpenari aurre egiteko KIVA proiektu berritzailea, eduki digital berritzaileak... Betikon, berritzea da gakoa.

Ikastolen ereduaren lau ezaugarri nagusiak ditu Betikok. Batetik, berezko hezkuntza-eredua, ikasle bakoitzaren abiapuntuak profiletik abiatuta, marko pedagogiko propioagaz, euskal curriculum eta konpetentzietan oinarrituta, integrazio-pedagogiaren bitartez eta euskara ardatz daukan eleaniztasunagaz. Izan ere, hori da bigarren ezaugarri nagusia: hezkuntza euskalduna. Betikon euskaraz bizi dira, eta euskaraz bizi gura dute herrian. Euskaraz munduratzeko dira eta euskaraz doroate mundua ikastolara.

Hirugarrenik, herritarra da proiektua. Hezkuntza zerbitzu publiko modura ulertuta, herritarrengandik hurbil dagoen erakundetza du Betikok: kooperatiba. Gurasoak dira haren kide, eta ikastetxeak gizarte-partaidetza eta erantzukizuna ditu ardatz. Ikastolen Elkarteak Europar kooperatiban batzen dira, beste ikastola denakaz.

Proiektu eraldatzailea daukate, horra laugarren ezaugarria. Betikon etengabe dabilten eskaintza pedagogikoa berritzen, konfiantzaren pedagogiagaz, EKI ikasmaterial berritzaileagaz, eskola jazarpenari aurre egiteko KIVA proiektuagaz, teknologia eta eduki digital berriakaz, eskolaz kanpoko jarduerak ugarituz... Arkitektonikoki ere eraldatzen dira, esparruak berrituz eta irekiz euren proiektu peda-



0-16 adin tartekoa da Betikoren eskaintza.

San Inaziotik Berangora bitarteko autobus-zerbitzua dauka Betikok.

gogikoari egokitzeko. Besteak beste, jantoki propio eta autogestionatua dute Betikon, eta bertan egiten dute elikadura-prozesu osoa. Gainera, gurasoek aukera daukate ikastolara bisitak egiteko. Hamaika berrikuntzaren artean badago, halere, aldatzen ez den zerbait: euskararen eta euskal kulturaren mesedetan dihardute, betiko moduan.

Jado, etorkizunari begira

Beharrezko dituzten baliabide eta gaitasunak eskuratuko dituzte ikasleek Jadon, eta euren ikaskuntza-prozesuaren protagonista izango dira.

Hezitzaile parte-hartzaile eta berritzaileak izateak bultzatzen ditu etengabeko formakuntza eta talde-lana sustatzera Jado ikastetxean. Gizarte-bilakaera geldiezin honetara egokitzeko, metodologia eta baliabide berriak guztiz beharrezkoak direla erabat barneratuta daukate. Ikastetxeko hezkuntza-proiektua etapa bakoitzak dituen beharrak kontuan hartuta diseinatu dute.

Hala, estimulazio goiztiarra eta tailer esperimentalak lantzen dituzte Haur Eskolan (1-2 urte), eta proiektu bidezko ikasketa garatzen buru-belarri dabilten Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Besteak beste, ikasleen arteko lan kooperatiboa, pentsamendu-errutinak eta barneratasuna garatzen dituzte horren bidez. Esperientziak eta ezagutzak elkartrukatzeko guztiz garrantzitsua iruditzen zaie, eta bisita pedagogikoak egitean jasotzen dituzte. Horrez gain, E-twinning eta Erasmus+ programekin parte hartzen dute.

Teknologia berrien erabilera ohikoa da ikasgeletan, eta Sare Hezkuntza 1x1 eta Robotika programazioei ekin diete aurren Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Baina berrikuntzak ez dagozkio




Jantoki eta sarrera berriak ireki dituzte ikasturte honetan.

Erandioko hainbat belaunaldik ikasi dute Jadon 80 urtean.

metodologiari bakarrik, instalazioak ere etengabe berritzen dituzte. Ikasturte honetan, esaterako, jantoki eta sarrera berriak estreinatu dituzte Tartangan.

Hizkuntzari dagokionez, Jadok eleaniztasuna du helburu, D eredu abiapuntu izanda. Euskal kultura eta euskararen aldeko ekimenen antolakuntzan esku hartzen du, Erandioko beste eragile euskaltzale batzuek batera.

Gaurko erronka: integrazioa



Urtez urte handituz doa atzerrian jaiotako ikasleen kopurura EAEko ikastetxeetan, eta horiek hezkuntza-sarean behar bezala integratzea izango da etorkizun hurbileko erronkarik handienetakoa. Prest gaude behar adinako bermez ekiteko?

UNAI BREA ►

Iazko azaroan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak *Atzerriko ikasleen eskolatzea EAEko eskola-sisteman* txosten mardula aurkeztu zuen. Hor adierazten denez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Lehen Hezkuntzan dabilen ikasleen %16,4 atzerrian jaiotakoa da, edo atzerritarra du gurasoetako bat gutxienez. Bigarren Hezkuntzan, berriz, %14,6koa da portzentaje hori.

Kopuruek gora egin dute azken urteotan, eta are gorago egingo dute datozenetan, aurreikuspenen arabera. Zenbait iturrik diotenez, iaz 4.300 ikasle ailegatu ziren atzerritik, horietatik 1.500 sare kontzertatura, eta martxan dagoen ikasturte honetan honezkero 6.000 ikasle ailegatu dira (2.500 ikastetxe kontzertatueta). Eta zenbaki horiek ikasturtez ikasturte handitzea espero da.

Hala ere, ustez behintzat, horrek ez du leku-arazo ikaragarri sortuko, hazkunde-tasaren jaitzierak orekatuko baitu egoera. Berriki *El Correo* egunkariak argitaratutako artikulu batean aipatzen denez, hain zuzen, ikastetxe batzuen kezka da ume gutxiago egoteak zer ondorio ekar diezaikeen epe ertainean. Eskola-komunitateko sektore askotan, haatik, daborduko aipatu dugun atzerriko ikasleen etorrerak eragiten du kezka handiena. «Aldaketa ikaragarria dator epe motzean, eta sistema ez dago prest», adierazi digu Koldo Tellitu Ikastolen Elkarreko presidentek.

Baliabide gehiago behar dira bertoko hizkuntzarik jakin barik ikasturtea hasita ailegatzen diren ikasleei harrera egokia egiteko

Esan dugunez, atzerriko ikasleentzat lekua egokitzea ez da bereziki arazo handia, bai ordea harrera behar bezala egitea. Izan ere, urtero ailegatzen diren milaka horietako asko kurtsua hasita sartzen dira dagokien eskolan, sarritan ez gaztelaniaz ez euskaraz ez dakitela. Baldintza horietan datozen umeak beste barik gela batean sartzea ez da konponbiderik egokiena.

GIZA BALIABIDEAK BEHAR DIRA. Arreta berezia eskaini behar zaie baldintza berezi horietan ailegatzen direnei, eta horrek esan gura du zeregin horretarako langileak behar direla. Arazoa da, esan bezala, hezkuntza-sistema ez dagoela prest ailegatu den kanpoko ume-kopurua modu egokian artatzeko. Izan ere, langileen gaitasuna gainezka dago daborduko, eta irakasle asko «erretzen hasita daude» gainera etorri zaien zamagatik, Koldo Tellituk dioskunez..

Horri aurre egiteko inbertsio sendoa egitea eskatzen da, orain arte Lakuako Hezkuntza Sailak egindako ahalegina ez nahikotzat joz. Itunpeko sareari dagokionez bakarrik, Jaurlaritzak hezkuntza-sarean urtero hogeita milioi euro inbertitzea eskatu zuten ikastolek, joan den urrian atzerritar jatorria duten ikasleen integrazioa errazteko egindako proposamenean.

«2018ko aurrekontuetan, esaterako, bi milioi baino ez zeuden aurreikusita ikastetxe kontzertatuotarako», adierazi digu Tellituk, «eta hasiera batean 1.600.000 baino ez zuten izan behar». Sare publikoari dagokionez, 126 irakasle berri hartu ditu Hezkuntza Sailak. «Oso-oso gutxi da datorren erronkari behar bezala aurre egin nahi bazaio».

Ikastolen proposamenean, azpimarratzekoa da gaur egun indarrean dauden hizkuntza-ereduak kendu eta horien ordeztu ikastetxe denetan murgiltze-eredua ipintzeko egindako eskaria. «Atzerriko jatorria duten ikasleak gizarteratzeko ekinbidean, hizkuntza-ereduen sistema baztertze-bide bihurtu izan da; eredu hori gainditu beharra dago segregazioari aurre egiteko».

Adimen emozionala eskolan

«Orain gutxira arte, pertsona baten adimenaz berba egiteko orduan haren koefiziente intelektualak besterik ez genuen kontuan hartzen. Gaur egun, ordea, adimen emozionalari ere garrantzia ematen diogu, pertsona baten zoriontasuna eta arrakasta erabat lotuta baitaude emozioakaz». Horrela dio Ana Isabel Saz Marín psikologoak. Baina zer da adimen emozionala? Zergatik landu eskolan?

AINHOA BRETOS ►

Daniel Goleman psikologo eta idazlearen arabera, adimen emozionala «gure sentimenduak eta bestee-
nak identifikatzeko trebetasuna da», baita norbera motibatze eta harremanak bideratzeko gaitasuna ere. Beraren ustez, «adimena eta emozioak bateragarriak dira orekan daudenean», oreka horretan adimenak emozioak «kontrolatu eta bideratu» egiten baititu, «emaitza arrakastatsuek» lortu ahal izateko. Zentzu horretan, paper garrantzitsua betetzen du eskolak, izan ere, Adimen Emozionala izeneko liburuan azaltzen duenez, eskola-arrakastaren % 20 adimen intelektualari zor zaio, eta gainontzeko % 80 adimen emozionalari esker lortzen da.

Hori dela eta, gaur egun hezkuntzak «gaitasun emozionalen heziketaren gaineko interesa eta beharra» onartu dela dio

Lortu beharreko helburuak

- Norberaren emozioak eta horien adierazpenaren kontzientzia.
- Autoerregulazioa.
- Baikortasuna eta motibazioa.
- Enpatia eta besteenganako konfiantza
- Jendetasuna.

Ester Alvarez Uria Udako Euskal Unibertsitateko irakasleak. Azaldu duenez, gaitasun emozionalak lantzeak hainbat onura dakartza: «Gaitasun emozionalen lanketak, gure mundu emozionalaren ezagutze-, ulertze- eta jabetze-prozesu bat dakar; horiek ematen diguten informazioaz baliatu ahal izango gara gure ekintzak askatasun eta osasun handiagoz nola bideratu erabakitzerakoan». Modu horretan, bizitzan zehar agertutako egoera eta zailtasunei «modu egoki eta osasungarriago» batean erantzuteko prestatuago egongo garela dio Alvarezek.

Eskolan ikasleei adimen emozionala garatzen lagundu ahal izateko, bestalde, ezinbestekoa da irakasle bakoitzak norbere adimen emozionala lantzea. Zentzu horretan, heziketa emozionala bizitza-zikloan kokatzen dela aipatu du Alvarezek, eta horregatik, haur-hezkuntzatik hasita eta zahartzarora arte iraun behako lukeela. Irakasleak heziketa emozionala jasotzeak irakasleari berari lagunduko diola azaldu du, «bere jardunean beharrezkoak izango dituen gaitasunak sustatzeko, baita irakaslea ikasleen eredu izanik, haien adimen emozionala garatzeko ere, ikasleek identifikazioz jasoko baitute ikaskuntzaren parte handi bat».

Dena den, oraindino bide luzea gelditzen dela aipatu du Alvarezek: «Askotako oraindik egiteko helburu orokorra lortze aldera, hau da, gizabanakoaren garapen osoa sustatzea, kognitibo zein emozionala. Eguneroko bizimoduan sortzen zaizkion erro-
nkei aurre egiteko gai izateko, haren ongizate biologiko, psikologiko eta soziala areagotzeko asmoz».

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA
5 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK
EKIN EUSKARARI!

MAILA GUZTIAK
A1-A2-B1-B2-C1

OTSAILAREN 18tik
EKAINAREN 28ra arte
(400 eskola-ordu)

OTSAILAREN 13RA ARTE MATRIKULA ZABALIK

GETXOKO UDAL EUSKALTEGI BERRIA [RKE]

Santa Eugenia plaza, 1
(Romo / Itzulbaltzeta) Getxo
94 464 62 99
euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi

Getxo
Getxo

Etorkizuneko proiektuari begira

San Nikolas Ikastolak etengabe gaurkotzen den sistema pedagogikoa du. Sistema horrek ikaslea du ardatz, eta gurasoak, langileak eta inguruko gizartea integratzen ditu.

Ikastolak konpromezu sendoa dauka umearen garapenagaz, eta etengabe sustatzen ditu irakasle, langile eta gurasoentzako formakuntza eta berrikuntza-proiektuak. Oinarriak herrian sendo finkatuta ditu, eta hezkuntza, gizarte-eragintza eta euskal kulturaren erreferente da.

Etorkizunari begira, hezkuntza- eta kudeaketa-proiektu berri-tzailea eskaintzen du, gaurko zein etorkizuneko guraso eta ikasleen beharrak asez. Herri-ekimenetik sortu den ikastolak herriari eskaintzen dio bere etorkizun-proiektua.

Haur Hezkuntzako ikasle, irakasle eta gurasoak Konfiantzaren Pedagogia proiektuan murgilduta daude, guztion artean gehiago ikasi eta ikusteko. Horrez gain, umeakaz hobeto jokatzeko familia mintegiak egiten ditu. Lehen Hezkuntzako azken urteetako eta DBHko ikasleen heziketaren ardatza EKI proiektua da, euskal curriculumean eta umeen konpetentzien garapenean oinarrituta dagoena.

Proiektuak ZTEAM zientzia eta teknologia biltzen dituen egitasmoa sustatzen du, IKT konpetentzien garapena digitalizatuz. Euskal ereduaren sendoa, eleaniztasunerako bidea hasi genuen aspaldi. Ikasleek ingelesez ikasten dute, eta badakite hizkuntza horretan komunikatzen, inguru hurbila gaituz eta mundura zabalduz. Ikastolaren



Umeak dira San Nikolas Ikastolako hezkuntza-proiektuaren ardatza.

Berrikuntza-proiektuak sustatzen dituzte etengabe.

nortasun agirian dauden baloreak dira umeen garapena elkarregaz bizitzea, berdintasunean bizitzea, emozioak ezagutzea, elkarregaz lan egitea, eta autonomia eta sormena sustatzea.

Hezkuntza-eskaintza osatzeko, hainbat ekipamendu eta gela izateaz gain, ordutegia osatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte: harrera-gela, ikasketa-gela eta eskolaz kanpoko kirol- eta kultur-jarduerak, besteak beste.

Eskola hurbil, bizi eta integratzailea

Leioako Artatza auzoan dagoen ikastetxe publiko txikia da Artatza-Pinueta. Ikasleen, irakasleen, langileen eta gurasoen arteko harremanak oso estuak dira.

Artatza-Pinueta euskaragaz eta euskal kulturagaz konprometitutako lerro bakarreko ikastetxe familiarra da; Leioan dagoen D ereduko eskola publiko eta euskalduna da, eta hezkuntza-komunitatearen sareko parte da 2004tik. Familien partaidetza bultzatzen du: eskolaren eta ikasleen aita-amen arteko harremanak sendotu gura ditu, eurak ikastetxeko komunitateko partaide sentitu daitezzen. Urteetan egindako hainbat berrikuntza fisikoren eta metodologikoren ostean (tertulia literarioak, talde elkarerragileak...), Artatza-Pinueta ikastetxearen helburua da ikasleek gaitasun eta trebetasun emozionalak zein kognitiboak garatzen laguntzen dien prestakuntza eskaintzea.

Gaur egungo gizartearen beharretan oinarrituta, eta haren aniztasuna kontuan hartuta, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetu gura dituzte, horretarako giro egokia eta parte-hartzea bultzatuz. Ikastetxe-komunitateko kide denen arteko harreman onak mantentzeko, errespetua eta elkarriketa lantzen jarraitzen du Artatza-Pinueta ikastetxeak.

Hezkuntza-proiektua baloreetan oinarritzen da, ondokoei lehentasuna emanez: elkarriketa, adostasuna, enpatia, elkarlana, errespetua. Eskola txikia izanda, ikasleek elkarregaz, irakasleakaz, familia-



Ikasleei banakako arreta eskaintzeko aukera ematen du ikastetxe txikia izateak.

Baloreetan, errespetuan eta elkarriketan oinarritzen dira.

kaz eta beste langileakaz dauzkaten harremanak sendoak eta estuak dira. Modu berean, ikasle bakoitzari atentzioa eskaintzeko aukera ematen dute, denei behar duten arreta emanez, bai arlo akademikoan, bai arlo pertsonalean. Bestalde, kutsadura akustikorik gabeko inguru natural batean txertatuta dago, eta eskolan bertan dauden ikuspegiak Bizkaian dagoen paisaiarik ederrenetarikoa dira.

AURRE-MATRIKULAZIOA

Zer pauso eman behar dut umea matrikulatzeko?

Daborduko zabalik dago Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan izena emateko kanpaina. «Zatoz geurera» da aurtengo goiburua.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta ikastetxe publikoek eta kontzertatuek abiarazi dute 2019-2020 ikasturterako aurretiko matrikulazio-aldia. Gurasoek eta tutoreek otsailaren 8ra arte edukiko dute epea umeak eta nerabeak inskribatzeko; izapide-sistema bera aplikatuko da Haur Hezkuntzan (bi urtetik aurrera), Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.


Sendiek aukeran edukiko dute aurretiazko matrikula gurago duten ikastetxean edo Internet bidez egitea, hezkuntza.net webgunean. Bigarren bide hori aukeratzen dutenek ez dute beharrezko izango, honenbestez, eskatutako dokumentazioa hautatutako ikastetxera eroatea. Pauso hori on-line egin beharko dute, eta dokumentuak eskaneatuta bidali. Hori bai, kontuan eduki beharra dago Internet bidez egitekotan egun bat lehenago amaitzen dela epea, otsailaren 7an.

Aurtengo honetan, hamabi ikastetxe hautatu ahal izango dituzte familiek, eta ikastetxe bakoitzak zerrenda berean ebaluatu beharko ditu eskaera egin dioten ikasle guztiak. Modu horretan, familiek ziurtatuta edukiko dute eurek baino puntu gutxiago eskuratu dituen inor ez dela lehenago sartuko aukeratuko ikastetxera. Gainera, aurre-matrikulazioa erraztu ahal izateko informazio-puntuak sortu dituzte, Eskolatzeko Bulegoen osagarri. Hamahiru gune Gasteizen egongo dira; zortzi, Bilbon; eta beste bat Arrasaten (Gipuzkoa).

Neska-mutilak D eredura eroan gura izanez gero, Uribe Kostako 32 ikastetxetan egongo da horretarako aukera. B eredua hobetsiz gero, hamaseik eskaintzen dute modelo hori. Azkenik, desagertze bidean dagoen A eredua bederatzi eskolatan irauten du, eta X modeloak bakar batean baino ez. D ereduan, euskara da irakas-hizkuntza, ikasgai bitan izan ezik; B ereduan ikasgai batzuk ematen dira gaztelaniaz eta beste batzuk euskaraz; A eredua gaztelaniaz da gehienbat; eta X, ingelesez.



Gure ikasleen ahotan



NAIA BARRENETXEA (18 urte, Sopela) Mondragon Unibertsitateko Oñatiko campuseko Enpresagintza Fakultatean ari da ikasten myGADE (Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza) gradu dualeko 1.go maila.

“Gradua amaitutakoan, 4 urteko lan-esperientzia duzu”

DEFINITU APUR BAT ZURE BURUA: NON EGIN DITUZU ORAIN ARTEKO IKASKETAK? BADUZU HOBBY EDO ZALETASUNIK?

Orain arteko ikasketak Sopolako Ander Deuna Ikastolan gauzatu nituen eta Batxilergoko lehenengo maila atzerrian egin nuen, Estatu Batuetan, hain zuzen. Dauzkadan hobbyen artean, euskal dantzak, lagunekin planak egitea eta mendira joatea daude.

ZERGATIK AUKERATU ZENUEN MYGADE GRADUA? ETA ZERGATIK MONDRAGON UNIBERTSITATEA?

Arrazoi bat baino gehiago izan nuen. Hasteko, aukeran ematen duten dual ibilbidea. Hau da, lehenengo mailan hasita laugarren mailara arte enpresa batean lanean jardutea. Unibertsitateko ikasgaietan teoria modura ikasten duguna praktikara eramateko aukera paregabea baita. Azken finean, materia bereganatzeko erarik onena hori dela uste dut. Beste alde batetik, Mondragon Unibertsitatean eskolak nahiko praktikoak izaten dira, eta ikasleen eta irakasleen arteko harremana hurbiltasun handikoa ere bada.

NOLA BALORATZEN DUZU ORAIN ARTE BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIA?

Positiboa izan da, niri gustatzen zaidan zerbait ikasten nagoelako eta hori inguru egokian egitea erabaki dudala uste dudalako. Gelakideen artean dagoen laguntasunak eta irakaslea beharrezkoa den bakoitzean laguntzeko prest egoteak gradu-hasiera honi bultzada egokia emateko aukera eman didate.

NOLA DEFINITUKO ZENUKE MYGADE-REN IKASTEKO METODOLOGIA?

MyGADEk bultzatzen duen metodologia nahiko praktikoa dela esango nuke, lan-mundura saltoa emateko orduan, irakasgaietan ikasitakoa ahalik eta gehien erabiltzeko aukera izan dezagun. Beste alde batetik, gradutik atera eta gero edozein pertsonarekin lan egiteko kapazak izan behar garenez, talde-lana asko bultzatzen da.

UNIBERTSITATETIK ZER GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN? HOBETZEKO ZERBAIT?

Unibertsitateak eskaintzen duen hurbiltasuna baloratzen dut gehien, nik uste. Edozein zailtza argitzeko beti baitago norbait. Bestetik, duala egite-

ko eskaintzen den aukera ere oso ona dela esan beharra dago. Azken finean, lau urteko lan-esperientzia eskuratzen baitugu.

LANEAN ARI ZARA IKASTEN DUZUEN BITARTEAN, EDOTA LASTER HASIKO ZARA, DUAL EREDUAN, NON ARI ZARA JARDUNEAN, EDO NON HASIKO ZARA, ETA ZER LAN-MOTA EGITEN?

Otsailan hasiko naiz dual ereduan. Niri Eroskin lan egitea egokitu zait. Beraz, Elorrión, Eroskiko egoitza nagusian egongo naiz lanean. Ikastearekin batera lan egitea dakar dual eredua, horrela teoria praktikara eramateko aukera eskaintzen zaigu. Lau urteetan zehar bi eratako esperientzia eduki dezakegu: alde batetik, sail bat baino gehiagotan lan egiten egon gaitzek; beste aukera lau urte horietan sail berean lan egitea da. Nire ustez, ibilbide bat ez da bestea baino hobea. Batak ez duena besteak eskaintzen du, ikasketa-prozesu ezberdinak dira.

ZER-NOLAKO EKARPENA USTE DUZU EGITEN DIZULA EREDU DUALAK?

Eredu dual honek lau urteko lan-esperientzia ematen du. Gradutik irten bezain laster hori lortzea oso zaila izaten da. Horregatik, dual eredua beste unibertsitate batzuek eskaintzen ez dutena ematen digula uste dut. Gainera, gelan ikasten duguna gogo handiagorik ikasten dugu, handik gutxira enpresan aplikatu beharko dugulako. Enpresan lan egiten egongo gareneko errealitate horrek, gradua ikaste orduan motibatzen balio digu. Eta azkenik, lehen aipatu bezala, eskola teorikoetan ikasitakoa finkatzeko aukera ezin hobea dela uste dut.

ATZERRIRA JOAN ZARA EDO JOANGO ZARA MYGADE-N?

Atzerrira joateko aukera edukiko dudala uste dut, eta hori aukera oso ona iruditzen zait. Esperientzia hauetatik asko ikasten delako, bai akademikoki eta baita kultura-aniztasunari eta hizkuntzei dagokienez ere.

ZEINTZUK DIRA ZURE ETORIZUNERAKO ASMOAK?

Momentuz, gradua bukatzea, eta prozesu honetan zehar ahalik eta formakuntza hobea garatzea, bai teorikoki eta bai praktikoki, etorkizunean profesional ona izateko.

www.mondragon.edu/prest

Zure enpresa, negozioa... iragarri gura baduzu, espazio hau zuretzat da. Ez galdu aukera!

Ipini gugaz harremanetan:

944 911 337

688 812 368

hiruka prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!

publi@hiruka.eus

«Hasierako indar eta ilusioak bizirik dirau»



Ikastolaren 50. urteurrena dela eta mosaiko erraldoia egin zuten iazko azaroaren 28an. HODEI TORRES

Ander Deuna Ikastolak 50 urte bete ditu. Mende erdiko ibilbidean herritar eta gurasoek ipinitako indarra azpimarratu du Xabier Ugalde zuzendariak, eta hasierako ilusioak bizirik dirauela azaldu du.

Ander Deuna, zerbait bada, auzolan handi bat dela dio Xabier Ugaldek. Izan ere, azaldu duenez, hainbat jende egindako esfortzu eta lanari esker lortu du ikastolak 50 urte betetzea. Auzolanaren kultura horrek bizirik dirau gaur egun ere, eta bazkideek aukera dute egiten duten lanaren bitartez kuotaren zati bat ordaintzeko. Dena den, bereziki lehengo 25 urteak nabarmendu ditu Ugaldek. Beraren ustez, ikuspegi herritarra zegoen orduan, «herriko jendeak parte hartu zuen, protagonista sentitu ziren, azkenean proiektua denona zen. Gurasoek, batez ere, beharra eta ilusioa sentitu zuten euren seme-alaben ikastola aurrera eramateko».


Oinarri horiekaz ekin zion martxari Ander Deunak, partaidetzaren aldeko ahaleginagaz, eta euskara eta euskal kultura ardatz. Oraindino ere, zeregin handia dago alor horretan, Ugaldek azaldutakoaren arabera. Hasierako erronkak, bestalde, aldatu egin direla aipatu du: «Orduan lehentasunezkoak ziren erakinak, helburu ekonomikoak... Gaur egun horiek ez dira funtsezkoak».

Auzolanaren kulturak bizirik dirau oraindino ere Ander Deuna ikastolan.


Hezkuntzaren ikuspegia ere erabat aldatu egin da azken urteetan. Ugaldek dioenez, ikasleek beste paper bat betetzen dute orain gela barruan, baita irakasle eta familiek ere: «Gaur egun, planteatzen da ikaslea bizitzaren osoko prozesu bat dela. Gure ikastolan dauden bitartean oinarriak hartuko dituzte ikasleek, etorkizun batean prest egon daitezen aurrekusi ere egiten ez ditugun aldaketetara egokitzeko». Horrenbestez, «lehengo molde zaharra aldatzea» da ikastolaren erronka nagusietako bat. Horregaz batera, talde lana, elkarriketa, tolerantzia eta elkartasuna lantzen dituzte Ander Deunan, eta ikasleengan pentsamendu independentea eta kritikoa garatzea daukate helburu, «denon inplikazioaren eta jokaera demokratikoen garapenaren bitartez».

Hezkuntza-eskaintzari dagokionez, 18 urtera arte egin daitezke ikasketak bertan. Zentzu batean, hala ere, ikastola txikia dela aipatu du Ugaldek, lerro bi besterik ez duelako. Kokapena «zalanza barik ederra» dela dio, naturagaz kontaktuan dago, eta etengabe herritzen dituzten instalazioak ditu. Horrez gain, honela definitzen du bere egitekoa ikastolak: «Kalitatezko, banakako eta euskal heziketaren aldeko familien eta langileen konpromisoa, partaidetzaren eta balioetan oinarritua».

Urteurrena dela eta, ikasturte osoan zehar egingo dituzte ospakizun-ekimenak. Besteak beste, ikasle ohiakaz deialdi bat egiteko asmoa dutela azaldu du Ugaldek. Horrez gain, 2021eko Ibilaldia antolatzen hasiko dira laster; Sopelan egingo dute jaialdia, Leioako Betiko ikastolagaz elkarlanean.







Burdinazkoa da Uribe Kosta, hein handi batean. Burdinazkoa da, esaterako, iaz 125 urte bete zituen Bizkaia Zubia, munduan eraikitako lehenengo transbordadore esekia. Burdinazko esaten zitzaion, baita ere, armada frankistaren erasoari aurre egiteko Uribe Kosta eta Bizkaiko beste eskualde batzuk alde alde zeharkatzen zituen Hesi hari. Orain gutxi ezagutu ditugu beraren zenbait sekretu, Urdulizen egindako arkeologia-lanei esker.



Baina ura ere badaukagu, daukagunez. Eta kostalde-kostaldean, gure historia hurbilenaren beste ikurretako bat: Lemoizko zentral nuklearra, sekula lanik egin ez zuena baina eraikitzetik 45 urtera oraindino zeresan ugari ematen duena. Berriki, zentrala dagoen eremua Eusko Jaurlaritzaren esku utziko duela iragarri du Espainiako Gobernuak. Inguruagaz ondoren zer gertatuko den, baina, ezin ziurtasunez esan oraindino.



«Gure lanaren ezaugarri bereziak legediak kontuan hartzea gura dugu»

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean, eta gidoilari ibili da ordutik. Azken urteetan, sektoreko lan-baldintzak hobetzeko borrokan dihardu.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

ETBko *Go!azen* telesailaren hurrengo denboraldirako eszena erromantiko bat erdizka utzi behar izan du hitzordura garaiz ailegatzeko. Ana Hormaetxeak (Algorta, 1974) hamar urte daroatza FAGA elkarteko zuzendaritzan, eta presidentea da orain dela hiru urtetik. «Euskal Herria, Galizia, Katalunia eta Valentziako gidoilari-elkarteen federazioa da FAGA, hau da, gaztelaniaz gainera beste hizkuntza bat daukaten erkidegoetakoa», azaldu digu. Espainiako Estatuan dabilen beste gidoigile-federazioagaz batera (ALMA), lanbidearen ezaugarri bereziak aitortu eta ezaugarri horiek sortutako zenbait diskriminazio ezabatze beharrean dabilta.

Fikzioa egiten zabilta orain. Badaude fikzio-gidoilariak eta ez-fikziozkoak? Egon badaude. Fikziokoak, saioetakoak, umorean espezializatuak... Baina Euskal Herrian gehienok

Zergen desoreka «Urte batean dirutza irabaz dezakegu, eta ondorioz zerga asko ordaindu, baina baliteke gero diru horretatik bost urte bizi behar izatea»

denetik egiten dugu. Saioetako gidoilari denek ez dute fikzioa egiten, baina fikzioa idazten dugunok ez dugu beste erremediorik saioak ere egitea baino, fikzio hutsaz ezin baita bizi hemen. Euskal Herrian fikzioa egiteaz bakarrik bizi diren hiruzpalau gidoilari baino ez dut ezagutzen. Izan ere, gaur egun, hemen, *Go!azen* besterik ez da egiten. ETBk iaz eman zuen beste fikzioa, *La víctima número 8*, Madrilén idatzi zuten.

Publizitatea ere egin duzu, ezta? Ikasketak amaitu nituenetik ibili naiz gidoiaren eta publizitatearen artean, batetik bestera. Ez dira hain desberdinak, izan ere gero eta antzekoagoak dira, gero eta euskarri hibrido gehiago dagoelako. Publizitateak, gaur ezagutzen dugun moduan, ez du luze iraungo. Betidaniko *spot* klasikoa trabatzat hartzen da orain, eta markak gero eta gehiago ahalegintzen dira euren edukiak sortzen, euren produktuak erakutsi ez ezik balore jakin batzuei lotu ahal



Ordu eta laurdeneko kapitulutzar horiek

Espainian sortutako telesailen kapitulu luzeegiak izatea leporatzen zaie sarritan. «Antena 3 eta Telecincon 70 minutuko kapituluak zituzten komediak eman dituzte, arrazoi komertzialengatik, *prime time* osoa bete gura zuten eta; amaiezinak ziren! Baina orain gehienak 50 minutukoak dira». Globalizazioari eskertu behar zaio hori, Ana Hormaetxearen esanetan: «Kanpo-merkatuan gehiago saltzen da, eta nazioarteko joerari egokitu beharra dago». Gidoilariak, badaezpada ez den argi geratu, kapitulu laburragoak egitearen alde daude zeharo.

Tiraderetan betiko galdutako *bibliak*

«Ez dakit nork esan zuen Espainian zinemarako gidoiak idazteaz hamar lagun baino ez direla bizi, eta ez direla urtero berberak», diosku Ana Hormaetxeak. Gidoilari batek denbora luzea eman dezake proiektu bat idazten, eta beharbada bost gidoitik bakarra salduko du. «Denbora luzea eman dut libre neuzkan tarteetan telesail-proiektu bat garatzen. Getxon gertatzen den istorio bat da, emakumezko protagonistak dituen. Bartzelonako ekoizle bati bidali nion *biblia* esaten zaiona, hau da, pertsonaien eta tramen deskribapena, kapituluaren laburpena, baita lehenengo kapitulu osoa ere. Urtebete daroate ekoizteko finantzazio bila, eta azkenik errodatuko balitz baliteke nik 30.000 euro jasotzea lan horregatik. Diru asko dela ematen du, baina kontua da nik 5-6 urte eman ditudala haregaz, eta egia esan oraintxe etorkizun iluna dauka proiektuak».

Aitortza eske

«Gidoilariok ez daukagu grinarik kalean gabiltzala jendeak gu ezagutzeko, baina bai egiten dugun lanaren balioa aitortu dadila»

Telebistaren geroaz

«Gaurko publizitate-ereduak ez du luze iraungo, telebista-eredu tradizionalak ere ez duelako iraungo beste hamar urte baino gehiago»

izateko. Uste dut hamar urteko epean burutuko dela aldaketa. Telebista-eredu tradizionalak oraindik behar du *spot*-ean oinarritutako publizitatea, baina telebista-eredu tradizionalak ez du iraungo beste hamar urte baino askoz gehiago.

Paperezko hedabideek ere desagertuta behar zuten honezkero, eta begira... Telecinco eta enparauak hor daude oraindino, sendo antzean. Hor daude, baina beste modu batean. Nik ez diot telebista desagertu egingo denik. Hamar urte barru oraindino egongo dira *Gran Hermano*, *Sálvame*, zuzeneko futbola eta Eurovisioneko jaialdia... Baina kontsumo-eredua desberdina izango da. Fikzioari dagokionez, ez dut esan gura ikusleek beste fikzio-mota bat gura izango dutenik, baina bai beste modu batera kontsumituko dela. Esaterako, *Go!azen*-ek orain audientzia-datu onak ditu, ETB1eko batez bestekoa hiru edo lau halako, baina harrigarriena da zenbatak ikusten

duten bestelako bideetatik: aplikaziotik, ETBren plataformen bitartez, Youtubeko emanaldi «piraten» bitartez... Zuzenean baino askoz gehiago ikusten da bide horietatik. Fikzioa beste era batera kontsumitzeko ohitura hartu dugu.

Zuri egindako elkarriketa baten izenburua irakurriko dizut: «Fikzioaren gorakadak ez du eraginik izan gidoilarien soldatetan». Soldatena, egia esan, ez da hain funtsezkoa. Izan ere, gure hitzarmenari begiratzen badiozu, esan dezakezu: «Hara, bapo kobratzen dute eta!». Gutxienekoa hileko 1.800 eurokoa da. Kontua da ez dugula urtean hamabi hilabetez lan egiten, ekoiztetxeen lantaldeetan dauden gutxi batzuek izan ezik. Esaterako, ni iazko ekainera arte *Go!azen*-en azken denboraldian lanean ibili nintzen, uztailean beste aste bi proiektu berri batean, abuztuan deitu egin zidaten «oporretan» nengoela (hau da, kanpoan egun batzuk pasatzen, baina langabezian), testu bat berriatzi beharra zegoela eta ea biharamunean joan nintekeen, beste aste birako, eta gero azaro-abenduan beste lan batean. Eta bitartean, neure proiektu batzuk sortzen. Urtarrilean, berriz, *Go!azen*-en hurrengo denboraldian hasi naiz.

Hori da gidoilari arrunt baten bizimodua? Bai, eta gainera gaur etxean nabil beharrean, bihar Bilbon, etzi Donostian, eta hurrengoan ez dakit. Gerta daiteke ere sei hilabeteen lan-eskaintzarik ez jasotzea. Gure borrokak baldintza horiekaz zerikusia du. Orain gutxi lortu dugu [Espainiako] Diputatuen Kongresuan dokumentu bat onartzea, sortzaileen lan-baldintzen gainean. Momentuz, eta lege zehatzen bidez arautzen ez den bitartean, ez da asmo hutsa bano askoz gehiago. Hala ere, urtarrilean lehenengo ondorioa ikusi dugu: %10eko BEZagaz fakturatu ahal izango dugu, %21ekoagaz beharrean. Horrez gainera, badaude neurri batzuk, arlo fiskalekoak, laneakoak... datozen urteetan gauzatu beharko direnak, eta hainbat ministerioren eskumenezkoak direnak. Talde politiko denek arrazoiak ematen digute, gure eskariak zentzuzkoak dira eta, baina neurri batzuk garatzeko zailak izango dira.

Zuen lana ikusarazteaz ere berba egiten duzue, ezta? Bai, horregatik esan dut lehen soldatarena gutxienekoa dela. Gidoilariok ez dugu ospetsuak izateko grinarik, ez dugu gura jendeak kalean gu ezagutzea, baina bai gure lanaren balioa aitortu dadila. Adibide batez azalduko dizut: *Ocho apellidos vascos*, Espainiako historian ikusle gehien izandako pelikula estreinatu zenean, haren gidoilariak ez zituzten gonbidatu Goya Sarien emanaldira [filmak bost hautagaitza zituen, eta hiru sari irabazi zituen]. Zinema-sarietan, pelikula baten gidoia aipatzean, pelikularen izena aipatzen da, baina ez gidoilariarena.

Herrialde anglosaxoietan ez ei da hala... Ez hainbeste. Orain arte, European film baten sortzailea zuzendaria delako ideiarekin eraginpean egon gara (Frantziatik dator pentsamolde hori). Baina askotan, zuzendariak pelikulagaz edozelango harremanik izan baino lehenago historia guztiz idatzita dago, guztiz sortuta. Ez diot zuzendariari dagokion egiletza kendu gura, baina gidoilaria ere sortzailea da. Eta urte askoan, batez ere espainiar zinemaz, hori guztiz ahaztuta egon da. Orain, telesail gehienetan zuzendari bat baino gehiago egoteari esker, zuzendari-sortzailearen ideia lausotu egin da, eta gidoilarien lana gehiago aitortu.

Baina, badago hori legez arautzerik? Ez noski, aitortza hori ez dago jasota Parlamentuan onartu den dokumentuan; fikzio baten kredituetan zerk agertu behar duen dioen legerik ez dago. Gu saiatu izan gara ekoiztetxeak jardun egokia arautzeko dokumentu bat adosten. Gero eta gutxiago gertatzen da, baina ekoizle batzuek (Euskal Herrian ez, baina Madrilan bai) euren izena ipini dute telesail baten «jatorrizko ideia» esaldiaren ondoan, lerro bakar bat idatzi ez arren, beharbada ideiatxoren bat gehitu izanagatik gidoilari batek emandako proiektu oso bati.



ETB1ek ematen duen *Go!azen* telesaila da gaur egun Euskal Herrian sortutako fikzio bakarra. Horko gidoilari-taldean dabil Ana Hormaetxea, daborduko aurtengo udagoienean ikusiko diren kapituluak idazten. Euskaraz eta erdaraz idazten da *Go!azen*.



Argazkian, Carmen Machi aktorea, *Ocho apellidos vascos* (2014) filmean egindako lanagatik Goya sari bat jasotzen. Ikusle gehien lortu duen espainiar pelikula izan arren, gidoilariak ez zituzten sari-banaketara gonbidatu, Hormaetxeak azaldu digunez.

Guk, FAGAn, gidoilarien lana ikusarazteko lan egiten dugu. Prentsa-ohar batean telesail bateko 22 aktoreak aipatzen direnean, eta gidoilaririk ez, gure izena ere agertzea eskatzen dugu.

Eta zer arautu daiteke legez? Guk gura dugu lanbidearen ezau-garri bereziak kontuan hartzea. Lana oso ezegonkorra da, diru-sarrerak ere bai. Pasa liteke urte oso bat etxean lanean ematea, norberaren proiektuak idazten eta dirurik irabazi gabe, eta hurrengo urtean hiru gidoi saltzea eta gainera telebistan lanean ibiltzea. Urte horretan dirutza eroango duzu poltsikora, eta horren ondorioz zerga altuak ordaintzea egokituko zaizu. Baina beharbada urte horretan irabazitako diruagaz hurrengo bostetan bizi beharko duzu, eta zergak ez dira horren arabera egokituko. Desoreka dago gainerako langileakaz alderatuta. Ogasunaren lana da orain hori konpontzeko arautzea, baina gaur egungo gobernua ez oso egonkorra, eta aldatuko balitz baliteke berriro hasi behar izatea, denek guri arrazoia eman arren.

Esan diguzu zer soldata jaso daitekeen ekoiztetxe batentzat lan eginda, baina autonomo modura dabilen gidoilariak zenbategi sal dezake gidoi bat? Hasteko, esan beharra dago erosleak ezartzen duela prezioa, batez ere hemen, Euskadin, azken erosle bakarra dago eta: ETB. Haiek ipintzen dituzte salneurriak eta epeak, guk ekoiztetxeetatik kobratu arren. Zinemari dagokionez, gidoi baten truke 5.000 euro kobra daitezke, edo 50.000, edo gehiago.

Badago gutxieneko tarifarik? Ez, legediak ez du halakorik baimentzen. Lehiaren Defentsaren Legeak, Movistar, Vodafone eta

Zuzendariaren eremuan ez sartu

«Pantailarako idaztearen eta bestelako generoen arteko ezberdintasun nagusia da gidoiak oso modu *bisualean* egin behar dituzula. Eleberri batean idatz dezakezu "Koldo, Enekoren anaia", baina pantailan agian ezin duzu esan "kaixo, anaia". Beste era batera azaldu beharko duzu harreman hori, beharbada logela berean lo egiten erakutsiz edo... Horrez gainera, elkarrizketetako izan ezik gidoiak hizkera funtzionala da, zenbat eta argiago eta zuzenagoa hobe. "Urtia dator, motxila ohe gainean uzten du eta badoa". Ez da komeni zuzendariari dagozkion erabakietan sartzea, eskuaren hurbileko planoak filmatu beharra dagoen ala ez, travellinga egin beharra dagoen ala ez...».

halakoek preziorik ez adosteko sortua zenak, profesional liberaloi eragozten digu gutxieneko prezioak ipintzea, eta are gehiago, ohiko edo batez besteko prezioen gidak argitaratzea ere.

Kate handiak pozik egongo dira... Jakina. Halako gidak argitaratzeko arrazoia ez litzateke gutxieneko prezioak ezartzea, nik gura banu musu truk ere lan egin nezakeelako proiektu bat gustatuz gero edota zuzendariaren laguna izanez gero, adibidez. Baina nik gidoi bat idatzi badut eta zuzendari batek esaten badit «honengatik 3.000 euro ordainduko dizut, horixe baita normalena», aukera eduki gura dut erantzuteko «ez, begira, taula honek argi dio hori ez dela normalena, 15.000 baizik». Gero, 3.000 euroan saltzea ala ez, nire hautua izango da. Baina ez diezaiegun iruzurrik egin geure buruei.

Zenbat denbora behar da film luze baten gidoiak idazteko? Egin zenezake hiru hilabete, horretan buru-belarri jardunez gero, baina seguruenik gidoi txarra izango da. Adibide bat: *Go!azen*-en, bost gidoilariko talde batek hilabete bi eman ditu beste barik hurrengo denboraldian zer jazoko zen erabakitzeke. Eta hori, aurretik prest edukita unibertsoa, pertsonaiak... Tramak egiten dira, kapitulu kapitulu banatuta; pertsonaien eboluzioa pentsatu beharra dago; tramek elkarrekiko koherenteak izan behar dute; horren denaren iraupena kalkulatu beharra dago...

Hori dena gidoilariaren meritua da? Noski. Elkarrizketak idaztea erraza da, platerari azken ukitua ematea, zelanbait esateko. Hori da azken lana, eta aurrekoa ondo egin baduzu ez da zaila. Puzzlea osatzea da zaila. Eta are zailagoa telesail batean. Gi-

TXIBERRI

edantokia

Frontoi partikularra,
terraza estalia,
bokatak,
artisansu-garagardoak,
eramateko tortila osoak
eta askoz ere gehiago.



Gustora egoteko behar duzun guztia!

Aita Gotzon kalea, 4 · URDULIZ · 946.760.715

doiak idaztea, izan ere, sudoku erraldoiak egitearen modukoa da. Pentsa, *Go!azen*-en, bost lagunen hilabete biko lana horretarako. Eta gero, kapitulu bakoitza idazteko hamar egun. Bakoi-tzak zati bat idazten du, eta gidoi-koordinatzailea arduratzen da osotasunari koherentzia ematen. Egindako lanaz konforme gaudenean ETBri eroaten diogu.

Bide batez, *Go!azen* gaztelaniaz idazten dela esan didazu lehen... Lantaldeko batzuek gaztelaniaz idazten dute, eta bes-teek euskaraz. Hala ere, azken bertsioa euskara hutsezkoa da, elkarriketak ez diren zatiak barne. Filologo-talde bat ardura-tzen da hizkuntz zuzentasunaz.

Ez da harrigarria ETB1erako fikzio baten zati bat gaztelaniaz idaztea? Bai. Kontua da euskaraz lan egiten duten fikzio-gi-doilari gutxi daudela herri honetan. Eta beste askok ikasgai hori daukagu gainditzeke, niretzat behintzat arantza handia da euskaraz ez idaztea, euskaltegietan sartu-irtenean ibiltzen naiz. Azkenean, ahalik eta irtenbiderik onena topatzeko aha-legina egiten da. Egia esan, uste dut azken emaitzak euskara hobea duela denok zuzenean euskaraz idatziko bagenu baino. *Go!azen*-en kasuan, nerabe eta gaztetxoentzat denez, arreta be-rezia ipintzen da horretan.

Zentsura eta autozentsura daude gidoigintzan? Bai noski, biak. Eta logikoa ere bada. Alde batetik zentsura komertzia-la dago, hau da, zure ikusleak nortzuk izango diren kontuan hartzea. Nik idatz nezake sudur-puntan jartzen zaidana, baina bere dirua eta bere langileena arriskuan ipintzeko prest legokeen ekoiztetxe bat topatu beharko nuke gero. Eta ekoiztetxe horrek arazo bera edukiko luke kate bat topa-tzeko. Espainiako Estatuko, eta be- reziki Euskal Herriko ikus-entzunezkoen indus- tria oso prekariora da, eta ahalik eta gutxien arriska- tzeko joera dago. Bes- zuzentasun politikoa talde, hartzen da kontuan. e r e
Go!azen-en, berbara- ko, gogoan izan behar dugu umeak hezten ga- biltzala. Edozein gau- za idazten duzula, beti eduki behar duzu kontuan norentzat idazten duzun. Adibidez, ez dugu berdin idazten, edo behintzat ez ge- nuke berdin idatzi behar, kate publikoetarako eta pribatu- etarako. Kate publi- koek funtzio soziala dauka- te, eta hori ere oso garrantzi- tsua da. ◀



aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31





Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat!

Getxo eta Berango artean

«Telebista soziala», horrela aurkezten du bere burua Tantaka TV komunikazio-proiektuak. Barrikan bizi den Tamara de Graciak eta Eneko Calle urduliztarrak azaldu dizkigute haren nondik norakoak.

«Herrigintzako gaiak ez dira agertzen komunikabide hegemonikoetan»

Bakea eta Duintasuna GKEko kidea da Eneko Calle. Tamara de Gracia, berriz, Mugarik Gabekoa. Eguneroko jarduna Tantakan dute gaur egun. HODEI TORRES

TESTUA: UNAI BREA ►

Euskadi-Cuba, Mugarik Gabe eta Duintasuna Eta Bakea gobernu kanpoko erakundeak 2016an hasi ziren lanzen telebista bat sortzeko proiektua. Egitasmoa Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zioten, baina orduko hartan ez zuten lortu behar zuten finantzazioa. Bai ordea 2017an. 2018 gehiena euren burua prestatzen eman zuten, eta azaroan hasi ziren edukiak sortzen, lau lagunek lantaldeagaz. Aurreikusitako programazioaren erdiagaz jarri ziren martxan, baina daborduko lortu dute parrilaren %100osatzea. Hamaika Telebistak utzitako estudioak baliatzen dituzte zenbat saio grabatzeko. Zabalkunderako, berriz, Internet.

Argi zeneukaten proiektuak telebista izan behar zuela. Zergatik? TAMARA DE GRACIA: Ikusten genuelako gure arloan ez zegoela halakorik. Badaude gauza batzuk Ahotsa.info-n eta beste batzuetan, baina horiek gaurkotasunari jarraitzen diote. Guk bideoteka bat osatu nahi genuen... Tira, hori ere ez da, baina kontua da momentuz ez dugula gaurkotasuna jorratzen; hamaisei saio daukagu, baina atenporalak. Gazteei begira ere nahi genuen aritu eta haiei zuzendutako saio batzuk sortu ditugu. Egin ditugu elkarrizketa eta solasaldi burutsuak, sakonak, baina beste mota batzuetako saioak ere bai, umorezkoak, arinagoak... **ENKO CALLE:** Hegemonikoekin konparatuta, herri-komunikabideek daukaten gauza interesgarri bat da herritarrak informazioa kontsumitzetik ekoiztera pasatzen direla. Guk hori egiten dugu, eta sarean ipini. Euskadi-Cubak egiten duen Cuba Información bada aurretik ere hedabidea, eta guk, Bakea eta Duintasuna eta Mugarik Gabe GKEok, lehendik ere egiten genituen ikus-entzunezkoak... Tantaka plataforma bat da horiek

Telebista egiten ikasi

«Borondatea, ilusioa eta gogoa dauzkagu, baina lantaldearen erdiak ez du izan kazetaritza edo komunikazioan eskarmenturik. Azaroan edukiak sortzen hasi aurretik formazio trinkoa egin dugu, lau urteko karrera egin dugu hiru hilabeteen, kar. 2019rako erronketako bat da guk ikasitakoa beste herri-eragile batzuei irakastea, eurek euren saioak ekoiztu ahal izateko»

guztiak sarean jartzeko. Badaukagu esperientzia hedabide batzuekin elkarlanean, beraz...

Zuen gaineko informazioa bilatuz gero, «alternatibo» berba ageri da behin eta berriz, baita «kontrainformazioa» ere. Zelan interpretatzen duzue hori? Zer da alternatiboa? T.D.G.: Hedabide hegemonikoek kontatzen ez dutena esatea, edo gustatzen ez zaigun moduan kontatzen dutena gure erara esatea. Batez ere, dakitenei hitza emanez. Jende adi-tua ekartzen saiatzen gara, baina guztiek ulertzeko moduko hitzak erabiliz, gai konplexuak gizaritari hurbiltzeko. E.C.: Azaroan Tantaka TV aurkeztu genuenean, herri-hedabide batzuetan galdetu ziguten «zergatik beste hedabide bat? Esaten duzue Ahotsatik, Hala Beditik, Arrosa Saretik, Argia-tik... ikasi duzuela, edota haiei begira sortu duzuela Tantaka, baina zergatik beste hedabide bat horiek egonda? Zer hutsune ikusi duzue horietan, Tantaka sortzeko?». Eta gure erantzuna izaten zen hutsunerik ez dugula ikusi, gu horiek osatzera gatozela batez ere. Guk ditugun harremanek, kontaktuek, ezagutzek... lagundu egiten digute horretan.

Zuen elkarteek jorratzen dituzten gaietatik, zer isiltzen dute hedabide hegemonikoek? T.D.G.: Ia dena, esango nuke. Badi-tugu bizpahiru saio kontrainformazioaz, bat Zentsurabideak izena duena. Zentsura jasan dutenei hitza ematen diegu horretan, hori ezinezkoa da komunikabide hegemonikoetan. Beste saio batean aztertu egiten dugu nola osatzen dira hedabideen botereak, argi dago haiek ez dutela hori inoiz kontatuko. E.C.: Esango nuke herrigintzarekin zerikusia duten gaiak ez direla agertzen komunikabide hegemonikoetan. Bil-bori buruzko informazioa, komunikabide horietan, tu-

rismoa izango da, hiriaren garapena... Eta beste gauza asko kanpoan geratzen dira: testuinguruak azaltzea, gatazka armatuenak esaterako; multinazionalen boterea, nola multinazional horiek dauden hedabide hegemonikoen jabegoan sartuta erabat... Horietan ez duzu entzungo Iberdrolaren kontrako albisterik, eta Tantakan berriz, bai.

T.D.G.: Telebista nagusiek emango dizute, beharbada, BBVAren kontrako urteroko ekintzaren berri, baina zergatia sakon azaldu barik. Eta gauza bera munduko gatazkei dagokienez: Sahara, Kurdistan... Oso konplexuak dira, eta jendeak izenburu nagusia baino ez dakizki horietaz. Gu 5-10 minutuko saioetan ematen dugu haien berri, datuekin, irudiekin...

Egin daiteke hori, 5-10 minutuan? T.D.G.: Bai. Denbora horretan nahikoa irudi hurbila eman daiteke egoeraz. Jende asko ez da egoten prest Palestinari buruzko ez dakit zenbat orrialdeko txosten bat irakurtzen hasteko, baina modu horretan azalduz gero ikusi egingo du...

Hizkuntza aldetik zein irizpide duzue? Helburua elebidunak izatea dela irakurri dut inon. E.C.: Ez ditugu kontuak egin orain arte. Otsailean izango dugu lehenengo ebaluazio-bilera Kontseilu Politikoaarekin [ikusi alboko koadroa], eta hori izango da irizpideetako bat. Baina esango nuke elebitasunaren helburutik hurbil gaudela, uste genuena baino errazagoa izaten ari da euskaraz ekoiztea. Hala ere, oreka horren barruan, saiatzen gara gonbidatzen ditugun pertsonen adierazten Tantaka Telebistak duen abantaila bat dela Euskal Herrian jaio arren estatuan ere oso jarraitua dela, baita Latinoamerikan ere. Eta gai batzuk gazteleraz jorratu nahi ditugu. Esaterako, tortura. Badira gai batzuk Euskal Herrian beti euskaraz lantzen direnak, ETB1en baino agertzen ez direnak, eta badirudi ETB2 ikusten dutenei, erdaldunei, ez zaizkiela interesatzen. T.D.G.: Tortura bera, motxiladun umeak...



Baloreak zaintzeko, Kontseilu Politikoa

Lau baloreen arabera definitzen du bere burua Tantaka TVk: feminista, internazionalista, plurala eta jasangarria. Ildo horiek betetzen direla behatzeko eta proiektuak izaera kolektiboari eusten diola ziurtatzeko, Kontseilu Politikoa sortu dute, hainbat hedabidek, elkarteek eta kazetariek osatua. Besteak beste, *Pikara Magazine*, Ekuador-Etxea, *Resumen Latinoamericano*, Joxemi Zumalabe Fundazioa, Reas-Euskadi, Ernai, Ekologistak Martxan, Hala Bedi, Komite Internazionalistak eta Feministalde daude Kontseiluan.

E.C.: Badakigu ahalegina eskatzen diegula gonbidatu batzuei, euskaldunak izanda gazteleraz egiteko eskatzen diegulako, gero beste kanal batzuetan zabaldu ahal izateko.

Bilbon egiten da Tantaka, baina Euskal Herri osokoa izatea da asmoa, ezta? T.D.G.: Hala Bedi oso ondo esan zuen hori bere buruaz eta ez dakit zergatik gu ez garen umilak horixe bera esateko. Hala Bediren ikuspuntua Euskal Herri osokoa da, baina Gasteizen dago eta, beraz, Gasteizko gauzak hurbilago dauzkate. Gu Bilbon gaude, baina Euskal Herri osoan gertatzen diren gauzak kontatzen ditugu. Orain Altsasukoaz dokumentala aterako da, joan gara irunera Fermin Muguruza elkarriketatzera, egon gara Gasteizko Errekaleor auzoan... Joan behar dugun lekuetara joaten gara. Ezin gara egon denbora guztian Tuteran, baina saiatzen gara kontatzekoak diren gauzak kontatzen. Momentuz Iparraldeak daukagu ahaztuta; egiteke daukagun gauzetako bat Kanaldude telebistarekin harremanean jartzea da...

Eusko Jaurlaritzak emandako diruari esker hasi zireneten martxan. Horrez gainera badaukazue bestelako finantzazio-iturririk? T.D.G.: Oraingo ez. Publizitatea? Ez dugu pentsatu etorkizunaz. Oraingo finantzazioa abenduan amaituko da, eta gure asmoa beste urte birako eskatzea da. Baina oraintxe ez dugu gogoia horretan. E.C.: Hor badago tentsio bat. Herrigintzatik sortu diren hedabide gehienak autogestionatuak dira. Hor talka bat dago: GKEak, diru-laguntzak eta autogestioa. Umm, ikusiko dugu. Tantakaren Kontseilu Politikoa dauden eragile batzuek autogestioaren alde egiten dute, uste dute Tantakak bide hori egin beharko lukeela. Baina nola egiten duzu bideragarri holako proiektu handi bat? Eztabaida hori hor egongo da, beti existitu da herri honetan. Zer puntutaraino administrazioetik diru-laguntza bat jasotzeak baldintzatzen duen hedabide bat... Momentuz askatasuna daukagu, baina tentsio hori egon badago. ◀

Euskarazko irakaskuntzaren alde; matrikulatu zure seme-alabak euskarazko ereduetan

Por una enseñanza en euskera; matricula a tus hijos e hijas en modelos en euskera

EUSKARA,
gure etorkizuna
nuestro futuro

Zure zalantzak argitzeko: // Respondemos a tus dudas en:

www.getxo.eus/euskara

ZINEZ DIOT | Petra



IZASKUN RODRIGUEZ

Harri indartsu baina leuna

Jaime Rosalesek egiten duen zineak, gustatu ala ez, altxor bat gordetzen du: berezko izaera. Ez dabil ikusle, industria edo epaimahaien onespenean bila, eta hala ere lortu egin ditu. Petra-gaz, apustua ikusle gehiago erakartzea izan da, lan egiteko modua eta ideiak aldatu barik, eta lortu egin du.

Ibilbidea modu ezin hobean hasi zuen Jaime Rosales zuzendariak: *Las horas del día*, bere lehenengo lanak, Cannesen saria lortu zuen, eta *La Soledad* izeneko bigarrenari esker, film onenaren eta zuzendari onenaren Goyakeroan zituen etxera.

Petrak ez daki nor den bere aita. Amak asko maite du eta ez dio inoiz esan, baina hura hildakoan, ikertzen hasi eta Jauma izeneko artista famatu bat izan daitekeelako susmoa hartzen du. Petrak, margolaria izanik, arte-erresidentzia baten bidez lortuko du Jaumaren etxean eta familian sartzea. Haren emazte Marisagaz, eta Lucas semeagaz, harreman estuak sortuko ditu.

Aurrekoetan ez bezala, antzezle famatuak aukeratu ditu Rosalesek proiektu honetarako. Aurten Estatuan egindako film arrakastatsuenetan (*El Reino*, *Todos lo saben*) txalotzeko lana egin duen Bárbara Lennie da protagonista erabat nagusia. Naturaltasuna da antzezle honek duen armarik botere-tsuen. Bigarren lerroan, baina inoiz baino egiazkoago, Ma-



Petra

Zuzendaria: Jaime Rosales
Gidoilariak: Jaime Rosales, Clara Roquet eta Michel Gaztambide
Antzezleak: Bárbara Lennie, Àlex Brendemühl, Joan Botey, Marisa Paredes...
Iraupena: 107 min
Otsailak 12, 20:00-tan
Leioako Kultur Etxean

risa Paredes diva handiak emaztearen rola jokatzen du, eta semearena, berriz, Àlex Brendemühlek, Rosalesegaz zergatik errepikatu duen argi utzita.

Antzezleak euren erosotasun-eremutik ateratzeari da famatua Rosales, pertsonaiez eztabaidatzeko aukerarik ez emateagatik, ez-ohiko inprobisazio kontrolatuengatik... Antzezleak izan dituen tirabirak ezagututa, deigarria da haiek pertsonaiei emandako sakontasuna. Aipagarriena Jaumaren pertsonaia gorpuztu duen Joan Botey hasiberriaren lana da. Ahoa bete hortz geratzeko modukoa, inoizko pertsonaia bihotz gabeenetako bat erakusten baitu, odol-tanta bat isuri barik.

Kronologiarik jarraitu gabe ere, ikusleengan etengabeko jakin-mina pizteko dago egituratuta pelikularen gidoia. Atalka eta denboran aurrera eta atzera eginez tragedia grekoaren zantzuak ditu, gai potoloetan murgilduta: erroak ezagutzeko beharra; pertsonen izaera zelan eraikitzen den; krudelkeriaren zergatiak; sekretuak gordetzearen ondorioak; diruaren esklabo izateak; tabuak; erruduntasuna... Clara Roquet eta Michel Gaztambideren neurriko gidoilarien laguntza sumatzen da.

Etengabeko berrikuntzan, Rosalesek ia beste pertsonaia baten lekua eman dio kamerari. Lokalizazioetara sartzeko modua, tarteka pertsonaiengandik aldentuz, haien solasa entzunez beste ezer erakusten digun bitartean.

«Petra» berbak harria esan gura du antzinako grekoz, eta zinez diot, harriaren indarra behar du izan tragedia honetako protagonistak, gertatzen zaiona gertatu arren bihotza harri ez bihurtzeko. ◀

Zinegoak 2019

www.zinegoak.com

Bilboko Gaylesbitrans 16. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdia
 16th Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas Gaylesbitrans de Bilbao
 16th Bilbao International Gaylesbitrans Film and Performing Arts Festival

OTSAILAK 18
FEBRERO

MARTXOAK 3
MARZO

ARTZATZALEN ERKATEA
ASOCIACIÓN ZINEGOAK ELKARTEA

PARTEA DIBULAKATZITZAILEAK OFIZIALES
berdindat euskaltel

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES
Bizkaia

hiruka app berria

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

Agenda
Albisteak
Argazkiak eta bideo albumak
Geolokalizazioa
SOS botoia

Deskargatu!

Google Play
 App Store



Goi-mailako profesional kualifikatuak osatzen dute Dermitek klinikako langile-taldea .

Barize lodiak: saio bakarrean ken daitezke, kirurgia eta ebakuntza ondorengo barik

Mina, astuntasuna, azkura eta zain hanpatuak dira, besteak beste, barize lodiak dituztenen sintometako batzuk. Bilboko Dermitek Klinikako Raquel Lambea dokto-reak azalduko digu zelan laguntzen dieten Dermiteken pertsona horiei barize barik bizitzen.

ZAIN-BARNEKO LASERRA BARIZEAK KENTZE-KO BEHIN BETIKO METODOA DA? Galdera horri gure esperientziaren benetako datuen bidez erantzungo diot: zain barneko laserraren birgaixotze-tasa %0,6koa da tratamendua amaitu eta hurrengo urtean, hots, oso urrun dago ebakuntza-gela batean operatutako barizeen %20ko birgaixotze-tasatik eta aparrez tratatutako barizeen %40ko tasatik.

2010ean hasi ginen zain-barneko laserra aplikatzen, harrezkeroztik barize lodien 1.800etik gora kasu tratatu ditugu eta emaitzak bikainak izan dira. Pertsona horiek ez dute min, azkura edo astuntasunik zangoetan eta, gainera, hainbeste kezkatzen zituzten koskorak desagertu zaizkie.

Dermitek klinikan dihardugunok ziurtzat jotzen dugu tratamendu horren eraginkortasuna; hortaz, edozein arrazoi dela eta, lehenengo hamabi hilabeteetan birgaixotzerik gertatuz gero, tratamendua doan emango genuke berriro.

ZERGATIK AUKERATU DU TEKNIKA HORI DERMITEKEK? Zain-barneko laser-mota asko dago. Eta horietako batzuk probatu ondoren, Dermiteken 1.320 eta 1.470 nanometroko laserrak aukeratu ditugu lan egiteko, emaitzak bikainak direlako eta tratamenduaren ondorengo aparta delako.

Tratamendu-arlo guztietan ISO 9001:2015 ziurtagiria lortu duen lehenengo klinika da Euskal Autonomia Erkidegoan.

ZERTAN DATZA TRATAMENDUA? Pazientea eta medikua elkartzen diren lehenengo al-dian, informazioa ematen dugu doan, hots, diagnostikoa egiten dugu doppler ekogra-fia bidez, arazoa non dagoen zehazteko eta tratamendua zelakoa izango den azaltze-

ko. Lehenengo kontsulta hori telefonoz, Skype bidez edo gure webguneko inprima-kia beteta egin daiteke, gura izanez gero. Aldez aurretik pazientearen argazkiak ikusi beharko ditugu, historia klinikoa eta gutxi gorabeherako aurrekontua egiteko. Hurrengo kontsultan, azaleko zein sako-neko zain-sistemaren mapa egingo dugu, tratamenduaren egunean mediku-taldea zehaztasun osoz gidatzeko.

Ordubeteen eta saio bakarrean burutzen dugu tratamendua. Zuntz oso mehe baten bidez, zainaren barrutik eragiten du laserrak, eta hori erabat itxi eta desagerraraz-ten du. Prozesu hori ekografia baten bidez kontrolatzen dugu, eta anestesia lokala besterik ez dugu erabiltzen.

Amaitutakoan, pazientea oinez aterako da klinikatik ordu erdiz ibiltzera, hankan konpresio-galtzerdi bat daroala. Ohiko jar-duerari berehala ekin diezaioke berriro, la-nari ere. Egun bi, hilabete bi eta 9-12 hila-bete igaro ondoren ikusiko dugu pazientea berriro klinikan, barizea berriro agertu ez dela ziurtatzeko.

P.S.E. 144/16

Zain-barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzeko ezaugarriak:



- Birgaixotze-tasa txikia: Dermiteken tratatu diren 1.500 kasuen artean egindako azterlan baten arabera, %0,6koa da. Kasuen eboluzioa zaindu ohi dugu lehen urtean, emaitza egiaztatu eta bermatzeko.

- Arrisku gutxiago: teknika ez da erasokorra. Kirurgia, ebaki, puntu eta ebakuntza-ondorengo bakoia da.

- Anestesia lokala erabiltzen da eta saio berean zango bietako safena benak trata ditzakegu.

- Tratamendu ondorengoko deserosotasun gutxiago: paziente oinez aterako da klinikatik eta konpresio arineko galtzerdi bat eroan beharko du. Egunean birritan ibili behar du, aste bitan zehar, besterik ez.

- Berehala hasiko da ohiko bizimodua izaten: gure pazienteek garrantzi handia ematen diote horri.



Uribitarte Pasealekua, 11 - 12, Isozaki Dorreak, 48001 BILBO

Astelehenetik barikura
8:30etik 20:00etara, eta
zapatuetan 9:00etatik
15:00etara

«Emakume surflariak euren gaitasun

Surfaren gaineko zinema bultzatzea helburu izanda, Sopela Surf Film Festival ekimena laugarrenez antolatu dute TAU MEDIA SLeK eta Sopelako Udalak. Urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra bitartean iraungo du festibalak, eta, aurreko ekitaldietan legez, surf arloko pertsona esanguratsuek berbetan jardungo dute bertan, horien artean Ana Urrutia kazetariak eta surflariak.

AINHOA BRETOS ►

Surfaren, 11 urte zituela hasi zen Ana Urrutia, Bakio-ko uretan. Gaur egun 46 ditu, eta ez da arraroa hura olatuak hartzen ikustea, taula gainean jarraitzen baitu kazetariak. Sopela Surf Film Festival ekimena dela eta, «Ahalduntzearen esnatzea. XXI. mendeko emakume surflarien esentzia» izeneko berbaldia eskainiko du otsailaren 2an, zapatuan, Kurtzio kultur etxean (Sopela).

Lehenengo eta behin, zer da «ahalduntzearen esnatzea»? Ahalduntzearen esnatzearen gainean dihardugunean, boterearen ahalduntzeari egiten diogu erreferentzia, modu orokorrean ulertuta. Alde batetik, emakumeok dugun barne boterea dago. Kanpotik aldaketa bat egin ahal izateko, lehenengo eta behin, norberaren barneko botere hori indartu, eta ahalduntzea gauzatu beharra dago. Horrek zera esan nahi du, gure gaitasunetan sinetsi behar dugula.

Azkenengo urteetan, barne-botere horren esnatzearen leku-koak izan gara. Emakume surflariak euren gaitasunetan sinesten dute orain. Zapaltzen gaituen sistema puskatzen asmatu dute azkenean, eta orain badakite, entrenamendu eta lan asko eginda, gauza izugarriak egitera hel daitezkeela. Barne-ahalduntze horren eraginez, inguruan dutena esnarazten ere hasi dira: babesle-laguntzaileak, komunikabideak, teknikiariak... Surfaren mundu osoa, azken batean.

Esango zenuke surf-giroa isiotu dela emakumeen artean? Bai, zalan-tza barik. Gero eta emakume gehiago dago uretan; dena den, pauso batzuk ematea falta da oraindino, adinari dagokionez, batez ere. Gaur egun neska gazte askok izena ematen dute surf-ikastaroetan, baina gehienek 15 edo 16 urte inguru dituztenean utzi egiten dute. Hor hutsune bat dago, eta betetzea lortu behar dugu.

Eta hutsune hori betetzeko zer egin beharko litzateke? Esango nuke erreferenteak izatea oso garrantzitsuak direla. Gizarteak horrela funtzionatzen ei du askotan; erreferente, idolo edo bidea erakusten digun norbaiti jarraiki ibiltzen gara. Ostera, ikastaroetan dabilen neskek ez dute emakume surflarien elkarriketarik, albisterik edo erreportajerik ikusten komunikabideetan edo sare sozialetan, ez daukate erreferentetzat emakume surflarik.

Horrez gainera, klubek egiten duten lana ere oso garrantzitsua da. Bakio-ko surf-taldean adibidez, taldea osatzen ahalegintzen gabilta neskari gaztetxoak. Euren bidea egiten lagundu gura ditugu, gizonak dituzten aukera eta baldintza berberak izan ditzaten.

Aukerak eta baldintzak aipatu dituzu. Zentzu horretan, alde handia dago gizonen eta emakumeen artean, adibidez, diruari dagokionez, orain dela urte batzuk munduko txapel-dun izan ziren emakumeek euren sariak saltzen zituzten

Sopela Surf Film Festival

Kurtzio kultur etxea (Sopela)

Otsailak 2, zapatua
16:30-21:30 Emakumeen eguna

Berbaldiak:

Ana Urrutia (20')
Aitor Francesena (20')
Leire Garmendia (20')
Tay Steele (30')


Filmak:

Lumière (17')
Maldivas (5')
Paige (21')
Surf stocked Mamas (19')
I am home (3')
Anvil (3')
Glassy (20')

Aurkezleak: Olaia Elorriaga, Ana Urrutia eta Alberto Urrutia.

Sarrera, doan.

«Emakumeok baldintza oso txarretan lehiatu izan gara urte luzez, eta ez bakarrik soldatak parekatuta ez zeudelako»



txapelketetan ostatuak ordaindu ahal izateko. Gaur egungo soldatak parekideak dira? Munduko Surf Ligak (WSL, ingelesez) emakumeen zein gizonen sarien diru-kopurua berdindu du. Horretan erreferente izan da hainbat instituziorentzat, baina, oraindino ere badira bestelako kasuak, 2018an Laredoko surf-txapelketa batean gertatu zena, barbarako. Gizonak irabaz zezaketen diru-kopurua emakumeena baino lau aldiz handiagoa zen. Horrek polemika izugarria eragin zuen sare sozialetan, eta, azkenean, sariak berdindu zituzten. Dena den, emakumeok baldintza oso txarretan lehiatu izan gara urte luzez, eta ez bakarrik soldatak parekatuta ez zeudelako. Nik txapelketetan parte hartu izan dut; mareak direla eta, itsasoaren baldintzak unerik txarrean zeudenean, orduantxe heltzen zen gure txanda... Askotan, epaileen bazkalordua zen une berean, gainera.

Izugarri sufritu dugu desberdintasun hori. Apurka-apurka lanean dihardugu emakumeen surfari merezi duen garrantzia eta protagonismoa emateko, eta oso tristea da ezer ulertzen ez

unetan sinesten dute orain»



Ana Urrutiak 35 urte daroatza Bakioko uretan surfean. HODEI TORRES

duen jendearen komentarioak irakurtzea surflarien Interneteko plataformetan. Etengabe tiraka jardun behar dugu, ez dute gure borroka feminista ulertzen. Feminismoa zer den ere ez dute ulertzen.

Babesari dagokionez, babesle-laguntzaileak lortzea erraza da surflari emakumeentzat? Aldaketa txiki batzuk nabaritu ditugu sponsor edo babesleen kasuan, baina oraindino egiteko asko gelditzen zaigu. Izan ere, hainbat kasutan, zoritarrez, askoz errazagoa da babesle bat aurkitzea edertasun-kanon jakin batzuk betetzen badituzu. Horrelakoetan, sponsorak arreta surflariaren itxuran ipintzen du, eta ez surfean egiteko daukan moduan. Hala, bideoak editatzean, surflariaren gorputza askoz gehiago erakusten du, hartu dituen olatuak baino.

Profesional-mailan egon dira horrelako kasuak, Silvana Lima brasildarra adibidez. Zortzi bider izan da Brasilgo txapeldun, eta birritan munduko txapeldunorde. Nahiz eta bere surfa izu-

«Hainbat kasutan, tamalez, errazagoa da babesle bat aurkitzea edertasun-kanon jakin batzuk betetzen badituzu»

garria izan, ez zuen babeslerik lortzen, eskatzen dituzten estereotipo horietatik kanpo dagoelako.

Eta materialaren kasuan? Berdin prestatuta dago? Guk materialean ez dugu bereizketarik egiten, markek ematen diote generoa. Orain dela gutxi modan jarri den surf jantzi bat merkaturatu dute. Ez dauka hankarik, kuleroen forma dauka, kulero txiki-txiki forma, hau da, ipurdi gehiena bistan geratzen da. Arropa hori zeroaten emakumeek, olatu bat hartzen zuten bakoitzean, neoprenoa birkokatzeke keinua egiten zutela ikusi izan dugu 2018ko txapelketetan. Guztiz kontzentratuta egon behar zuten une horretan, baina euren energia ez zegoen olatueta bideratuta, jantzira baino.

Horrek nahiko argi erakutsi du, beste behin, zein den jantzi horien eta horrelakoak egiten ibiltzen direnen helburua, ez? Zertarako egin dute, surflariok erosoago egoteko, ala surflariok gure ipurdia erakusteko?



Mundu-mailako hainbat txapelketa jokatu dituzte Garazi Sanchez eta Leticia Canales uribekostarrekin. WSL

Dena den, emakume surflarien errealitatea asko aldatu da azken urteotan. Izugarri. Urrats erraldoiak eman ditu surfak azken urteotan. Ni 1983an hasi nintzen. Bost neba nagusi ditut, euren olatuak hartzen zituzten eta nik dena imitatzen nienez, surfean hasi nintzen. Garai horretan ez zegoen ia-ia emakumerik uretan, oso gutxi ginen, eta gehien-gehienak surflarien arrebak izaten ginen.

Bizi izan dugun errealitateagatik, itsasoan ahizpatasuna izan da nagusi. Emakume bi baino ez ginen egoten surfean 40 gizonen artean, gutxiengoa izan gara beti. Hori dela eta, esan daiteke babestu eta lagundu egin diogula elkarri. Txapelketaren kasuan ezberdina da, noski. Azken batean, lehiaketa lehia da. Baina hortik kanpo talde polita osatu dugu beti. Esango nuke kirol hau ulertzeko beste modu bat daukagula, eta olatu bat hartu ahal izateko borroka ere. Gurea beste errealitate bat da, eta hori nabaritu egiten da uretan.

Zelakoak dira gaur egungo emakume surflariak? Zein da, zure ustez, XXI. mendeko emakume surflarien esentzia? Gaur egungo emakumeen esentzia lehenago aipatu dudan ahalduntze horretatik sortu dela esango nuke. Oso borrokariak dira, eta ondo baino hobeto erakutsi dute entrenamendu eta prestakuntza fisiko egoki batez munduko olaturik handienak hartzerantz hel daitezkeela. Guretzat orain dela urte batzuk guztiz pentsaezina zen emakumeak XXL zirkuituan lehiatzea.

Historiako emakume surflari batzuk

Isabel Letham (1899-1995)

Hainbaten ustez, taula gainera igo zen lehenengo emakumea izan zen.

Mary Ann Hawkins (1919-1993)

Hiru bider irabazi zuen *Coast Women's Surfboard* txapelketa.

Margo Oberg (1953)

Profesional-mailan jokatu zuen lehenengo emakume surflaria izan zen.

Rell Sunn (1950-1998)

Emakumeen Surf Profesionalaren Elkarte eta Emakumeen Surf Zirkuitu Profesionala sortu zituen.

Beste kontu bat, oso garrantzitsua, kategoriena da. Txapelketetan hainbat kategoria dago parte-hartzaileak sailkatze-ko, besteak beste: 14 urtetik beherakoak, 17 urtetik beherakoak, eta emakumeak. Uste dut hori gainditu behar dugun gauza bat dela. Surfa gizonezkoena izan da beti, euren eta eurentzat, eta gu, emakumezkoak, izan gara gainontzekoa. «Gainontzeko» horren kontra borrokatzea da gaur egungo emakume surflarien esentzia, nire iritziz. Daborduko ez gara kategoria bat, ez gara gainontzekoa. Daborduko surfa ez da gizonezkoena.

Zer izan da beharrezkoa emakumeak puntu honetara heltzeko? Tira, esango nuke oraindino bide luze-luzea dugula aurretik. Baina orain gauden puntura heltzeko ezinbestekoa izan da, batez ere, kapazak garela sinestea. Emakumei txikitatik kontatzen digute ez garela gai hainbat gauza egiteko, baina izan bagara. Oso garrantzitsua izan da, era berean, zalantzan ipintzea eta aldatzen hastea orain arte naturaltzat hartu izan ditugun egoera batzuk. Ni gazteagoa nintzenean, ez zitzaigun bururatzen zenbait gauzaren aurrean protesta egitea, eta orain aldiz bai, orain bidezkoa ez den zerbait ikusten badugu, kexatu egiten gara.

Azkenean, gu beste errealitate bat gara, gure surfa ezberdina da. Baina gizonezkoen eskubide, aukera, babes, laguntza, arreta eta estaldura berdina gura dugu, guk merezi dugulako, eta gure surfak merezi duelako. ◀

Mundukatuak Zürich

«Beste kultura batzuk ezagutzeko aukera dago»



Zohartze Palacio Villar

Nongoa
Algorta.

Adina
29 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Ikasketak
Industria-ingeniaritzan lizentziatua, eta enpresa-ingeniaritzan graduatua.

Noiz heldu zinen?
2014ko urtarrilean.

Noiz arte bertan?
Auskalo.



Lurraldea
Suitza.

Azalera
41.285 km².

Hiriburua
Berna.

Biztanleria
8.500.000 (2018).

Hizkuntzak
Suitzak lau hizkuntza ofizial ditu: alemana, frantsesa, italiara eta erromantxea. Alemana da gehien erabiltzen dena (biztanleriaren %72,5), eta Zürichen egiten dena. Erromantxea, berriz, herritarren %0,6k baino ez du erabiltzen.

Moneta
Suitzako frankoa.

TESTUA: AINHOA BRETOS

Zohartze Palaciori ez zaio gelditik egotea gustatzen. Mugitzea gurago du, eta bizitza azkenengo tantara arte xurgatzea. Ingeniaritza-ikasketak amaitu eta Polonia eta Ingalaterran egon zen bizitzen. Euskal Herrira bueltatu zenean, erabaki zuen oraindino asko zuela ikusteko. Horrenbestez, maletak egin eta Zürichera joan zen. Administrazio- eta enpresa-ingeniaritza ikasketak hasi zituen, eta berehala hartu zuten Züricheko enpresa batean lan egiteko. Bost urte darotza bertan.

Neguan bertako bizimodua eta hemengoa oso ezberdinak direla azaldu du. Hotz handia egiten du han, eta etxe barruan egiten dituzte aste-akabuko planak. Udan, bestalde, kalean egoten dira, tabernetako terrazetan, erreketan edo lakuan bainatzen. Hiri eta auzoetako festak antolatzen dituzte ere, eta Euskal Herriko txosnen moduko zerbait jartzen dute. Hala ere, esaten duenez, Algortak eta Zürichek ez dute inolako antzekotasunik: «Hemen ez dago hain giro onik, oso garestia da eta jendea ezagutzea ez da batere erraza».

Ez zitzaien kostatu hango bizimodura moldatzea; suitzarren izaera ulertzea, ordea, bai. Dioenez, gehiegi pentsatzen dute dena: «Eurakaz ezin da espontaneo izan, beti daukate agenda beteta eta norbaitegaz geratzeko hilabete bi lehenago antolatu behar dute hitzordua. Puntualegiak dira, eta ez dute umore handirik». Harremanetarako, euskaldunen antzekoak direla aipatu du: hasieran hotzak, baina behin ezagututa oso lagun onak.

Zürichetik gehien gustatzen zaiona arkitektura da, baita bertako lakua eta bizi kalitatea ere, oso lasaia eta segurua baita. Horrez gain, hiri handi batean bizitzeak abantaila asko dituela aipatu du: «Ekintza asko antolatzen dituzte, jatetxe asko dago, eta beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen du».

Familia eta lagunak ditu faltan gehienbat Zohartze Palaciok. Baita ere Galeatik txakurragaz paseatzea, Portu Zaharrean trago bat hartzea eta, zer esanik ez, itsasoa. Daborduko itzulera antolatzen dabil: «Lan egiten dudana enpresagaz Bilbon jarraitzeko ditudan aukerak begiratzen nabil; azkenean, denok itzultzen gara sustraietara».

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:



Hamarrekoa

Ikusten dituzu irudien arteko aldeak? Hamar dira denera.



Zenbat
katilu
ikusten
dituzu?



HAU DENA
ERE OPARITU
DIDATE...




Irudi engainariak

Zazpi irudi-zati hauetatik 4 engainariak
dira, alegia, ez daude beheko irudi
nagusitik hartuta.
Zeintzuk dira?

Dominoan

Marraz itzazu lauki zurietan
falta diren irudiak, dominoak
zentzua izan dezan.





Han eta hemen

Begiratu ongi bi irudi hauei. Badira zortzi gauza eszena bitan ageri direnak. Ikusten dituzu?



Itzala

Zein da lasterka ihesi doan horren itzal zuzena?



Lehiaketa **Non dago?**



Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, alboko sariak irabaziko dituzu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria

Gukiñe online dendako produktuak

Gukiñe online dendari esker, umeak aldatzeko azpiko izara eta adur-zapia irabaz ditzakezu alboko galderari zuzen erantzunez gero. Otsailaren 10a (domeka) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.

Flashback **Algortako Itxasgane taldeko udalekuak** 1967ean

AINHOA BRETOS ▶

Algortako Itxasgane Eskaut Taldearen argazkia dugu hau. 1958an sortu zuten taldea. Aldai Patronatuko (Algorta) atikoan batzen hainbat ume eta gazte aste-akabu guztietan, eta udalekuak antolatzen zituzten urtero, Bizkaia inguruko hainbat herrietan. Argazkian ikusten dena, zehazki, Mijangos (Burgos) herrira egindako txango bat da, gurasoen bisita egunean aterata, 1967. urtean. ◀

ARGAZKIAN:

Beheko lerroan, ezkerretik eskumara: Ana Deusto, Txema Bretos, Juan Luis Bretos, Auro Bretos eta Anton Bretos.

Bigarren lerroan: Roman Deusto eta Elena Sanchez.

Hirugarren lerroan: Aurora Losada eta Pedro Losada.

Laugarren lerroan eserita: [?], [?], [?].

Bosgarren lerroan zutik: Jesus Carlos Bretos eta Valerio Basozabal.



AURO BRETOSK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora



Obieta eta Jadori

TESTUA
Jagoba Pereda
Txopitea

DOINUA
Habanera

ARGAZKIA
Hodei Torres

*Udaletxeko enparantza
dore jantzita hona;
Erandioraino sartu
egin da negu sakona...
Kotoizko jantzi azpian
beste bat liteke soma,
altxatu dezagun hotza
eta zuria den gona.
Ba al dakizue nor den
elur azpian dagona?
Gogoratu dezagun nor
zen txarra eta nor ona...
Agustin Obieta da,
sona handiko gizona;
herrira ekarri zituen
garapen ta zoriona.*

*Mediku, politikari
eta ez bada nahikoa...
Bilbo ta Tuterako arteko
trenaren batzordekoa;
hiriburuko uraren
horniduraren gakoa,
sukar-beltz izurriari
aurpegi emanekoa;
gaixotasunei buruz
luze idatzitakoa,
Bilbon alkate izana
ta gudaren kontrakoa...
Gizon handia izan zen
horko eskulturakoa,
elurrak freskatu digu
memoria historikoa.*

*Erandion Obieta
kalea ez da arraro,
hur beste estatua bat
bada: Laureano Jado.
Eskolak izen berdina
dauka, oker ez banago;
ta gainera bete zuen
Altzaga etxez oparo.
Nahiz eskulturek mantendu
oroitzapena luzaro,
beraien eredia gaur
ahaztuta dago zeharo.
Gaur egun trajedun lapur
ziztrin ugari badago
eta behar duguna da
jende langile gehiago.*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Non dago? Lehiaketa

Argazkian ikusten den
Uribe Kostako lekua zein
den igartzen baduzu,
Ghero, azken euskalduna
antzezlanaz goatzeko
sarrerak irabaz ditzakezu

Martxoaren 10ean (domeka), Leioako
Kultur Etxean antzeztuko den obrara joan
gura baduzu, otsailaren 15a (barikua)
baino lehenago bidali zure erantzuna,
zure izen-deiturak eta harremanetarako
bidea hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Ghero, azken euskalduna

3000. urtea. Euskara
desagertzeko zorian dago. Zer
egingo du azken euskaldunak?
Tartean Teatroa eta
Euskaltzaindiaren arteko
elkarlanean sortutako
antzezlanak.

Loraldia Festibaleko ikuskizun hauetako batera
joateko sarrerak irabazi gura badituzu, otsailaren
15a (barikua) baino lehenago bidali zure izena
eta harremanetarako bidea hiruka@hiruka.eus
helbidera. Adierazi mesedez zerrendako zein
ikuskizunetara joan gura duzun.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



- Kalaportu: Martxoak 15 (barikua), Arriaga Antzokian. 2 sarrera bikoitz
- Biz Hitza: Martxoak 16 (zapatua), Arriaga Antzokian. 2 sarrera bikoitz
- Mundubira: Martxoak 22 (barikua), Itsasadarra Itsas museoan. 2 sarrera bikoitz
- Maite Larburu: Martxoak 28 (eguna), Azkuna Zentroan. Sarrera bikoitz bat
- Belatza: Martxoak 29 (barikua), Azkuna Zentroan. Sarrera bikoitz bat
- Hibai eta lagunak: Martxoak 31 (domeka), Euskaldunan. Sarrera bikoitz bat
- Bustinezko etorkizuna: Apirilak 7 (domeka), Guggenheimen. Sarrera bikoitz bat

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako
euskarazko komunikazio-taldearen
bultzatzailea eta partaidea izango zara.



prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!



Egunero abentura ezin ederragoan murgiltzen gara euskal prentsa egiten dugunok. Bidaia horretan ezinbesteko lagun zaitugu zu, euskaraz bizi, euskaraz arnastu, euskaraz pentsatu gura duzun hori. Izan zaitez gure bidaide, izan zaitez HIRUKALagun!

Abentura honetako kide izateko: administrazioa@hiruka.eus

hiruka